



IÑAKI URIA

«Egunkariak
zer kalte
egin die AVT
eta Dignidad
y Justicia-ri?»

SAGARDO POSTERRA OPARI →

- **Sagardotegiak** Krisiari aurre egiteko estrategiak
- **Pedro Alberdi, idazlea:** «ETAn egondakoek zer gutxi kontatu duten euren esperientzia»
- **Net Hurbil** Magrebeko Al Kaeda famatua benetan Al Kaeda al da?
- **Henrike Olasolo, Holandako euskal editorea:** «Distantzia ona da nire fantasia mantentzeko»



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia

Gaztaina / Larrua

Mizpira / Alpaka

Mizpira / Larrua

Mizpira / Zilarra

- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

- 4 Deabruaren abokatua: Iratxe Esnaola.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 16 Eliteko kirolari ohiak. Ametsa bukatu da.** Mikel Garcia.

Iritziak

- 19 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
20 Ttakun (h)errenka. Itzalaldi jenerala. José Luis Padrón.
21 Zertarako balio du kazetari batek?
Rosa Maria Martin Sabaris.
Etixerat Joxemari Ostolaza.
22 Sentitu, pentsatu, egin. Eneko Olasagasti.
Etorriaren ekarria. Joxerra Garzia.
23 Zirtak. Kaikuen eta kankarroen ipuina.
Jose Inazio Basterretxea.
24 Bertso berriak. Gotzain berriari jarriak.
Imanol Lazkano.

Erdiko kaiera

- 25 Pedro Alberdi: "ETako jendeak ez du bizi zuena kontatzeko modua landu".** Mikel Asurmendi.
28 To Shoot an Elephant. Erasoan pean, kameraren atzean. Iñigo Astiz.
30 Liburuak. Xabier Etxaniz Erle.
31 Musika. Iker Barandiaran.
32 Ezpalak. Jon Torner.
33 Abarrak. Gorka Bereziartua.
35 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
36 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.

Termometroa

- 42 Erretiroa 65 urtez harago atzeratu nahi dute.**
Daniel Udalaitz.
44 Esfahango armeniarak. Aiatolen lurraldeko "gurutzatuak". Karlos Zurutuza.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.
48 Net Hurbil. Saheleko Al Kaeda, geopolitikak sortutako Frankenstein berria. Pello Zubiria.

5 | Sagardoa | Uxua Larretxea

Sagardotegietara ere iritsi da krisi ekonomikoa. Batzuek berrikuntzak eta eskaintza zabalagoak egiten dituzte, bezero gehiago erakartzeko. Beste hainbatek nahiago du sagardotegi tradizionalaren ereduari eutsi, menua eta giroa aldatu gabe. Bakoitzak bere estrategiak ditu garai gogorrei aurre egiteko.



10 | Pertsonaia: Henrike Olasolo

Uxue Alberdi

50 | Azkena: Galtzeko denborarik ez

Aingeru Epaltza

39 | Iñaki Uria | Urko Apaolaza

Egunkaria auzian inputaturik dago Iñaki Uria eta egunotan epaitzen ari dira beste lau pertsonekin batera. Elkarriketa honen bidez bere sententziak zein diren azaldu digu Uriak, epai posibleen gainean hizketan aritzea gaitza egiten den arren.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua





“Anti-Facebook naiz”

Iratxe Esnaola | .eus

Sareak pertsonak ere harrapatzen dituenetik...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Josu Santesteban

Esadazu benetan zer den denon bizitzak aldatu dituen Internet hori.

Ez dugu sekula jakingo. Bere garapenaren abiadura gure asimilatzeke gaitasuna baino askoz handiagoa da. Ez dakigu noraino iritsi daitekeen, eta gaur egun nora iritsi den ere ez digute kontatu nahi.

Interneten bikotekidearekin baino ordu gehiago pasatzen dituen “yonkiak” jakingo du zer edo zer, ezta?

Bakoitzak behar duenerako erabiltzen du, eta inor gutxi kezkatzen da erabilera horrek suposatzen duenaz eta izan ditzakeen ondorioez.

Ez esan irakatsi digutena interesatua denik?!

Guk jakitea nahi dutena irakasten digute, edo guk jakin nahi duguna euren saltsan sukaldatzen dute. Jakin behar ez dugunik ez digute kontatuko.

Nor dira haiek?

Munduaren ordena berriaren jabe izan nahi dutenak, eta horretarako Internet oso tresna egokia dela jabetu zirenak.

Inozoak gu, Facebook-eko iraultzaileak!

Jendeak nor izan eta zerbaiten parte sentitzeke beharrian itzela dauka. Hori bai, gure intimitate intimoena zabaltzen dugula sinestarazi arren, ondo agertzen garen argazkiak baizik ez ditugu jartzen. Ni anti-Facebook naiz eta hura gabe bizi daitekeela ziurtatzen dizut.

Ez zara kontrol sozialaren matrakarekin hasiko, ala?

Informazio elektronikoak arrasto handi eta luzea uzten du. Dena erregistratuta geratzen den garaiotan, edonor izan daiteke polizia, eta poliziak are poliziagoak dira.

Apustu egingo nuke software librearen aldeko itsu horietakoa zarela.

Beste inoren zain egon gabe, nire sistema osoa euskaraz edukitzeko aukera eman zidan. Hizkuntzaren, eskuragarritasunaren, eta beste herrialdeekiko elkartasunaren ikuspegitik, software librea defendatuko dut!

.eus defendatzen nahiko lan zenuela uste nuen.

Interneten euskara egotea garrantzitsua bada, euskara izatea askoz garrantzitsuagoa litzateke. Ikusgarritasun sinbolo bat behar dugu euskararen presentzia hori modu esponentzialean sustatzeko.

Zergatik enfokatu duzue dena euskararen ikuspegitik? Ez al zen Euskaltel batzen gintuena?

Interneten dena dago klik batean eta zerbait galtzen bada geografia da. Leiho beretik hitz egiten duzu Kanadako lagunekin zein pareko bizilagunarekin. Horri sarean komunikatzeko tresna eraginkorrena hizkuntza dela gehitzen badiozu, munduari so ari gara, ez gure zilborrari.

Google.eus edo Ikea.eus ikusiko ditugu?

Momentuz ez daukagu domeinua eskatzeko aukerarik ere, baina suposatzen da goiz ala berandu izango dugula. Hortik aurrera, gauzak ondo egiten baditugu eta ez bada kontrako ahotsik sortzen, ez da arazorik egongo. ■

• ASTERO GAIA •

Sagardoa

Eredu ezberdinak eta arauak krisi garaian

Txotx denboraldia ate joka dugun honetan, sagardogintzan izan diren hainbat aldaketari begira jarri gara; sagardotegi ereduak, krisiari aurre egiteko joera ezberdinak eta sagardo egunen arautzea hartu ditugu hizpide, besteak beste.

UXUA LARRETXEA

Argazkiak: Dani Blanco

SAGARDOAREN MUNDUA aldatu egin da azkenaldian, eta hainbat gauzek zerikusi gutxi dute garai batekoekin. Hala, bi sagardotegi eredu nagusitu dira: handia eta bide eta zerbitzu berriak aztertzen dituenata; eta ohiko sagardotegi ereduari estuago jarraitzen diona bestea. Horien adibide dira

Petritegi eta Goiko-Lastola, hurrenez hurren. Biak ere sagarraren lanketan aritu arren, negozioa norabide ezberdinetatik bideratu dute.

Berrikuntzaren bidea jorratu du Petritegik (Astigarraga), bere ateak irekiz geroztik eten-gabe handitzen eta garatzen joan baita. Enpre-

Txotxaren funtzioa gutxik ezagutzen du: sagardoa egiteko prozesuaren etapa bat da, probaketa, eta hortaz, oraindik sagardoa egin gabe dago. Botilaratutakoan dago erabat eginda.





Bisita gidatuak eta haur parkea daude Petritegi sagardotegiko asmoen artean. Bezero berriak erakartzea da helburua.

sa bezala aldaketarik izan ezean museo izango liratekeela uste dute Petrítegiko arduradunek, eta hortaz, ikusteko baizik ez lukeela balioko. “Enpresa guztiek jendeak zer eskatzen duen ikusteko kanpora begiratu behar dute eta horretara egokitu, ez baitago jendearen erosotasunaren aurka joaterik”. Hori dena, baina, nortasuna galdu gabe egin behar dela diote –sagardoa, ekoizpen prozesua eta ohiko janaria mantenduz–, horrek bereizten dituelako beste negozioetatik.

Petrítegik urte asko daramatza sagarrari zukua ateratzen. 1940ean dagoeneko sagardoa egiten eta botilaratzen hasi ziren. Hasieran, ekoizpena txikia izanik etxerako erabiltzen zuten, baina 70eko hamarkada inguruan dastatzei eta txotx jarduerari ekin zioten. “Botilen salmenta ostalaritzarekin –txotxarekin– uzartu genuen, eta hori sektorearentzat berrikuntza handia izan zen, diru iturri garrantzitsua izateaz gain, noski. Euskal Herrian betidanik izan duen garrantzia galtzen hasi zen sagardoa, eta txotx denboraldiak berpiztu zuen, promozio gisara funtzionatzen du-eta”.

Bide berriak jorratu nahiak 70-80eko hamarkaden artean beste urrats bat aitzinera ematera eraman zituen: 400 lagunentzako sagardotegia urte osoan irekitzea. Familia handia dira eta horrek bermatzen die hein handi batean horren negozio handia aurrera ateratzea. Txotx denboraldian 25 lagun izaten dira lanean eta ekoizpenean beste zazpi. Pertsona bakoitza bere eginkizunaz arduratzen da, antolamendua funtsezkoa baita.

Sagardotegiaren bi aurpegiak

Sagardotegietara joaten den jendearen profila asko aldatu da azken urteetan, eta bide berriak bilatzeko sagardotegi askok egin duten ahaleginaren ondorio da hori. Jendearen eskakizunetara egokitu beharraz hitz egin du Ereñotzuko (Hernani) Goiko-Lastola sagardotegiko Laxaro Etxabe jabeak: “Gizartea aldatu egin da eta horrekin baita jendearen exigentziak ere. Beraz, egokitu egin behar da. Txotx denboraldian bereziki bolumenean antzematen da alde handiena, asko masifikatu da-eta. Gainera, jendeak joera batzuk izaten ditu; orain, esaterako, larunbat gauean etortzeak sona galdu du eta eguerdian etortzen dira parranda luzatzeko”.

Txotx denboraldian jakien inguruan sagardoaz gozatzeko beste aukera bat eskaintzen du Goiko-Lastolak; hamabi urteko sagardotegiak aukera ematen du kanpotik janaria ekartzeko eta bertan prestatzeko. “Ohitura hori galdu egin da eta koadrilan harakin bat-edo baldin badago agian ekartzen dute, baina ez da normalena”. Sagardotegiko menu tradizionala eskaintzen dute, bariantarik gabe, eta beraz, garai bateko sagardotegiak gustuko dituztenentzat Goiko-Lastola egokia dela dio Etxabek.

Ez da hori Petrítegiren kasua, menu tradizionalaz gain aldaera batzuk baitituzte, zazpi denera; hala nola, arrain gehiagoko menua, edo haurrei zuzendurikoa –janari kopuru gutxiagorekin eta beste produktu batzuekin–.



Badago, baina, sagardoaren munduak izan duen aldaketa begi onez ikusten ez duenik ere: “Lehengo jende sagardozalea kexatzen da eta normala da, guri hemendik hogeitatera gertatuko zaigun moduan”, aitortu dute Petritegin. “Beste batzuekin partekatu behar dituzte orain sagardotegiak, baina gurea negozioa da eta biziraun nahi badugu, ezin dugu sagardozale profil batera soilik mugatu, ateak denentzat ireki behar ditugu”.

Krisiaren aurrean bide berriak jorratuz


Krisiaren itzala sektore guztietara hedatu den garai hauetan, are garrantzitsuagoa da bezero berrietara iristea. Botilen salmenten jaitsiera 2008ko udazkenetik hona nabaritu egin dute,

Goiko-Lastola sagardotegiaren ereduagatik (irudian jabea, Laxaro Etxabe), krisiak ez du botila salmentan eraginik izan: botilak inguruko arteen banatzen baitituzte.

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko buru Arantxa Eguzkitzak baieztatu duenez. Edonola ere, gaineratu du aurreko txotx denboraldia nahiko ongi joan zela eta ez zela izan aurreikuspen ezkorrenen zioten bezain txarra.

Goraldia izaten denean, beheraldia ere izaten dela badakite Petritegin, baina dena den baikorrak dira: “Krisiari beldurra baino, errespetua diogu. Kontziente gara aurtengo salmentak ez direla duela bi edo hiru urtekoen parekoak izango, baina ez dugu espero hainbesteko beheraldirik”. Goiko-Lastola sagardotegiko jabea ere baikor ageri da eta argi du jendeak erantzungo duela.

Sagardotegia txikia edo handia izan, irabaziak berdinak ez diren gisa berean galerak



UROLA JATETXEA

FERMIN CALBETON, 20 • 20003 DONOSTIA
Telf: 943423424 • Fax: 943 424 424 • urola@restauranteurola.com
www.restauranteurola.com

“Jendeak ez du sagardoa behar bezala baloratzen”

Iparragirreko sagardogile Arantxa Eguzkitzak 2008an hartu zuen Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen gidaritza. Gustura ari da lan taldeko buru, sagardoaren sektorearentzat eta sagardogileentzat lanean; “guk baino hobeto ez daki inork zer behar dugun”.

Elkarteko lehendakaritza hartu zenuenetik hona zein balantze egiten duzu?

Sagardoaren sektorearentzat eta sagardogileentzat lan egiten dihardugu, eta horrenbestez, gure lanaren fruituak guk geuk jasotzen ditugu. Elkarteko zuzendaritzako batzordean egoteko sagardogilea izan behar duzu nahitaez eta beraz, beharrak etxetik dakartzazu. Elkartearen baitan gauden 58 sagardogileen artean orotariko sagardotegikoak gaude (handiak, ertainak eta txikiak), eta behar ezberdinak ditugu. Horrek ez du esan nahi sagardogile guztiek behar berberak ere ez ditugunik (formazioa, administrazioari begira egin beharreko kudeaketak, etiketa eta sagarraren ingurukoak...); hain justu, horiei

erantzuteko dago elkartea. Dena den, sagardogile bakoitza bere lehentasunen arabera mugitzen da, logikoa denez.

Kargua onartu zenuenean zein helburu jarri zenizkion zure buruari?

Egun, sagardoaren duintasuna eta balorea bermatzeko eta gure ofizioak duen balioa transmititzeko ari naiz lanean, besteak beste. Izan ere, alderdi horretan gabezia zegoela ohartu nintzen kargua hartu eta berehala. Elkartea sagardo munduan erreferentzia garrantzitsuagoa izatea ere nahiko nuke.

Elkartea zuzentzea egokitu zaizun garai honetan sagardo munduan aldaketa handiak izan dira. Nola ikusten duzu sagardoak bizi duen egoera?

Egia da oso garai interesgarria egokitu zaigula. Gurutze-bide batean gaude, etorkizuna ez da segurua eta guk hori kudeatu behar dugu. Iparragirre nire sagardotegiari dagokionez, bada-ki gutxi gorabehera nondik joan. Bestalde, elkartearen eta

ezin berdinak izan. Petrategiren kasuan bereziki botilen salmentan nabaritu da krisia. Euren salmentaren zati handi bat ostalaritzara bideratzen dute (tabernetara eta jatetxetara) eta jendea kanpora jatera edo edatera joaten ez bada salmentek halabeharrez behera egiten dute. Ez da hori Goiko-Lastolaren kasua; euren salmenta –20.000 litro egiten dituzte urtean– ingurukoengana bideratua dago, eta hori dela-eta, ez dute botila salmentan jaitsierarik izan.

Krisiari aurre egiteko hartuko dituzten neurriek galdetuta, sagardotegiko jabeek onartu dute ez dutela menuaren prezioa jaitsiko. “Txotx tradizionaleko menuko produktuak garestiak dira; bakailaoaren prezioa izugarri garestitu da azken urteetan, txuleta ere oso garestia da, eta hortaz, zaila da prezioak jaitea”, dio Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko buruak. Halere, iaz egin bezala, aurrean ere prezioak egokitzen saiatuko direla baieztatu du, “hornitzaileek gurekin hori egiten badute behinik behin”. Beste zerbait eskaini edo ez erabakitzea sagardotegi bakoitzaren hautua da bere iritziz, baina jendeak finean menu hori bilatzen duela dio. Etxabek uste du txuletaren ordez gisatua edo ematen hasiko balira, ez litzatekeela inor joango.

Sagardotegiko menuaren prezioa merkatu ez, baina beste bezero profil bat bilatzen hasteko asmoa dute Petrategin: “Orain artekoekin gustura gaude, baina badaezpada beste ate batzuk jotzen hasiko gara, ez gara behintzat ezer egin gabe geratuko”. Bezero berriak bilatzeko ahaleginean zerbitzu ugari eskaintzen dituzte; ospakizunetako otorduak egiteko parada –hala nola, euskal usadioari jarraituz

egiten diren ezkontzetakoak–, enpresei begirako promozioak, jubilatuentzako eskaintza berezia, eta erretzaile eta erretzaile ez direnentzat txoko bereziak.

Halaber, aurrera begirako proiektuetan dabilta murgilduta; esaterako, sagardoaren ekoizpen prozesua erakusteko bisita gidatuak antolatzeko asmoa dute sagardoa bera baloratzeko eta duintzeko. “Jende asko sagardotegira une atsegina pasatzera etortzen da, eta ez da konturatzen beraiek hain erraz edaten duten horren atzean zer nolako lana dagoen”. Haur parkea egiteko egitasmoa ere lantzen ari dira, gurasoek askotan ez baitute jakiten beraiek sagardotegian daude-nean haurrak non utzi.

Sagardo egun eta sagardo festei formaltasuna eman nahi die Gipuzkoako Sagardogileen Elkartek, sagardoa modu duinean zaindu eta zabaltzeko

Arauk, sagardoa duin tratatzeko

Txotx denboraldiaz eta botilen salmentaz jardun dugu orain arte, baina horiez gain sagardoari loturiko beste hainbat ekimen egiten dira herriz herri: sagardo egunak, dastatzek eta lehiaketak. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen aburuz, sagardoari loturiko ekintza horiek indar handia dute sagardoaren promozioan baldintza jakin batzuk betetzen dituzten neurrian. Beraz, sagardo egun eta sagardo festei formaltasuna eman nahi zaie elkartetik, sagardoa modu duinean zaindu eta zabaltzeko. Gauzak horrela, ekimen horiek koordinatzen hasi dira, antolatzailerekin elkarlanean zenbait baldintza eztabaidatuz eta txertatuz. Horietako bat da azkeneko Donostiako Sagardo Egunean erabili zen sistema; edalontzia erostearekin batera hamar txartel eman zituzten, eta beraz, hamar trago edan zitezkeen, jendeak

zuzendaritza taldearen papera sagardogileei ahalik eta informazio eta baliabide gehien ematea da; informazioak autonomia ematen du, nondik nora jo ahalik eta ondoen erabakitze-ko. Sagardotegi bakoitzak bere lekua eta nortasuna bilatu behar ditu eta guk bakoitzari entzun eta erantzun egin behar diogu.

Autonomiaz gain, garrantzitsua iruditzen zait daukagun produktuaz (sagardoaz) eta kulturaz harro sentitzea. Horrekin lotuta dago sagardoaren duintasuna berreskuratu nahia. Sagardoak edari bezala ez du merezi duen lekua eta jendeak ez du behar bezala baloratzen; horren gertu eta merke izan dugu beti kanpotik etorri behar zaigula norbait daukaguna baloratzeri! Produktu naturala, alkohol gutxi daukana, freskagarria, bere neurrian osasuntsua dena, bertako nekazaritzari laguntzeko aukera ematen duena –hemengo sagarrak erabiltzen direlako–, eta abar. Esandakoa gutxi ez eta gainera txotxa dugu, munduan inon ez dagoen errituala! Kultur ondarea da, eta harro egoteaz gain, babestu egin beharko genuke.



edandakoa balora dezan. Gehiago nahi zue-nak txartel gehiago erosi behar zituen.

Ekimen horietan egon zale izaten dira Petritegikoak, botila marka gisara promozionatzeko eta jendeari euren sagardoa hor dagoela gogorarazteko. Ondo ikusten dute sagardo jarduerak arautzea eta txartel sistema egokia dela uste dute, jendeak zein sagardo marka edango duen hobeto pentsatzen duelako eta hori markaren-tzat ona delako.

Goiko-Lastola sagardotegiko jabearentzat txartelen sistema sinbolikoa da beste ezer baino gehiago, ez baita kontrol zorrotza egi-ten. Hori bai, egokia da sagardoaren kontsu-moa kontrolatzeko; “arautzearen bitartez iru-dia zaindu nahi da, bereziki administrazioaren aurrean, ez dadin sagardo eguna demasiarekin lotu eta ez dadin sagardoa gaizki tratatu”.

Orain arte basoa erosi eta nahi adina eda-ten zenean, gehiago ordaindu behar izatea ez da ziurrenik denen gustukoa izango. Halere, Petritegiko arduradunen esanetan, ohitzea denbora kontua izango da: “Horrelako egu-netara jende heldu asko joaten da eta horiei ohiturak aldatzea zaila egiten zaie. Gazteek ez dute ezer esaten, txartel sistemara ohituak daudelako. Ez da diru kontua, baizik eta lehengo funtzionatzeko sistema apurtu dela eta berrira ohitu behar direla”.

Uzta berria dastatzeko errituala

Txotx denboraldia gure artean horren eza-guna izan arren, inork gutxi daki zein den bere benetako funtzioa. Sagardoa egiteko prozesuaren etapa bat da txotxa, eta hortaz, oraindik sagardoa egin gabe dago. Botilan dagoenean dago erabat eginda.

Txotxaren funtzioa probaketa da, eta horri esker, sagardo uzta berria urtarrila erdi aldetik

apirila bukaerara dasta liteke. Era berean, sagardoak upelean izaten duen bilakaera antzemateko aukera eskaintzen du. Sagardoa botilaratzeko ohiturarik ez zen garaietan upela ireki eta bukatu artean edaten zen bertatik, normalean pitxarretan hartuta. Gerora, txotx garaia erosleek upeltegiko sagardoa probatu eta gustukoena aukeratzeko erabili izan da.

Batzuei egin gabeko sagardoa, upeletik datorrena gustatzen zaie, beste batzuei, aldiz, botilakoa. “Gutxi batzuek dakite sagardoaren eboluzioa aintzat hartzen”, azpimarratu du Eguzkitzak. “Ez da nahikoa esatea ‘hau ona dago edo ez dago ona’, baizik eta ‘atzeratua dago, egiteko dago’, prozesua askoz ere kon-plexuagoa baita. Muztietatik hasita sagardoa ona den edo ez jakiten ikasi behar da”. Ahal den neurrian jendeak kontzientzi-az eta arreta jarriaz edatea berreskuratu egin behar dela iruditzen zaio, esku artean daukana baloratze-ko modua izateaz gain, dastatzen ikastea kul-tura bat delako. Hor sagardogileek zer esana eta zer egin badute, bere aburuz.

Txotxaz ari garela, ezin honako galdera hau egin gabe amaitu: nolakoa izango da aurtengo sagardoa? Petritegiko arduradun-ek luzatu diegu galdera: sagar gutxi egon da, justu samarra eta sufritua izan da. Bi etsai izan ditu aurtengo uztak, lehortea eta harra. Euri gutxi egin due-nez, sagarrak azukre kontzentrazio bera dauka baina ur gutxiago; horrek kontzentrazio sendo-agoa sorrarazi du. Ondorioa? Alkohol gehiago izango du aurtengo sagardoak, gradu erdia edo.

Horixe da sagardoaren berezko xarma, urtero sagardoalea uzta berria probatzeko irrikaz izaten duena. ■

www.argaia.com/multimedia

atalean, gai honi buruzko bideoa.

«Euskal Herria nahiko herri birtuala da»

Ez al dira fantastikoak errealitate guztiak?

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Umetan zuen etxean ez zen euskararik aditzen?

Ez, ama madrildarra da eta ez daki euskaraz, eta etxean gaztelaniaz egiten genuen. Haurra nintzela gure ama ere hasi zen euskara ikasten, osabak emandako liburu batzuekin, eta ni ere 12 urterekin-edo hasiko nintzen gramatika zaharrak irakurtzen, baina han gelditu ziren ahaleginak. Aitak, gaztelaniaz aritu arren hainbat hitz euskaraz esaten zituen, eta hazi ahala konturatu nintzen bazeudela hitz batzuk, hamar edo hamabost hitz, euskaraz nekizkie-nak eta ez gaztelaniaz, nahiz eta Madrilen jaioa izan eta gaztelania izan nire ama hizkuntza. Adibidez, nik “está kili-kolo” esaten nuen, edo nahiko hazia nengoela konturatu nintzen txahal bat *ternera* bat zela. Txahalak euskaraz ikasi nituen gaztelaniaz baino lehenago.

Garai hartan zer zen zuretzat Euskal Herria?

Bi planetaren artean bizi nintzela uste nuen. Euskal Herria zen planeta bat eta Madril ingurua beste bat, erabat desberdina. Ikusi nuen Euskal Herriko mundua oso desberdina zela, eta oso aberatsa. Alde batetik baserria zegoen, eta oso giro tradizionala, baina bazegoen Donostia ere, eta hiri industrialak ere bai. Herriko festetan baserrira joaten ginen eta han elkartzen ginen denok, klase guztietako jendea. Garai hartan Madril nahiko elitista eta klasista zen, eta niri izugarri gustatzen zitzaidan Euskal Herriko irekitasuna. Niretzat Euskal Herria nahasketa perfektua zen tradizioaren eta modernitatearen artean, eta tradizioetik modernitatera emandako pausoa miresgarria iruditzen zitzaidan. Hori zen benetan erakartzen ninduen: Euskal Herria oso txikia izan arren indartsua zela gauzak sortzeko, egiteko. Niretzat Euskal Herria beti izan da oso modernoa.

Sekula ez zara bertan bizi izan?

Ez, behin ere ez.

Gaur egun Donostian duzu familia, eta emazteak, Baionan.

Bai, emaztearen ahizpa Baionan bizi da eta azken bolada honetan asko gabiltza Iparraldean. Niretzat oso normala da Iparraldearen eta Hegoaldearen artean bizitzea. Erakartzen nauena Euskal Herria bera da, ez bestelako eraginak eta, beraz, nagoen tokian nagoela beti saiatzen naiz Euskal Herria bilatzen. Muga hori muga administratibo gisa bakarrik bizi dut; agian hori baino muga garrantzitsuagoak ditugu gure barnean. Euskal Herria nahiko herri birtuala da, baina birtualitate horretan askatasuna ematen du ez hemen ez han egoiteak. Sarrionandiak esaten zuen hiru motatako herriak daudela: herri handiak, herri txikiak eta herri ikusezinak. Euskal Herria herri ikusezina da. Euskal Herria herri fantasma dela ere esan zuen, baina hori beste gai bat da. Eta kontzeptu hori izugarri gustatzen zait. Milan Kunderak dio nazio handiak eta txikiak daudela, eta nazio txikia izatea ez datzala datu objektibo batzuetan, luzera edo biztanle kopurua kasu, baizik eta uste sakon batean: zure existentzia bera kolokan egotearen uste sendoan. Esaten zuen, adibidez, Espainiak eta Poloniak biztanle kopuru bera zutela, baina Poloniak badakiela zer den bere existentzia kolokan izatea, eta espainiar bati inoiz, inola ez zaiola burutik pasa bere izatea kolokan dagoenik.

Nola osatzen da zure identitatea?

Ni euskaldun sentitzen naiz, eta ez bakarrik sentitu, nik uste praktikoki hala naizela. Dene-

Nortasun agiria

Henrike Olasolo 1966an jaio zen Madrilen eta han hazi zen, baina betidanik oso harreman estua izan du Euskal Herriarekin. Euskalduna du aita, Jeronimo Olasolo etxebarritarra, zesta-puntista ohia, eta oporraldietan aitaren baserrira edo Donostiara etorri ohi zen umetan. Arkitektoa da, baina literatura, zinema eta artea ditu pasio. 1993an hasi zen euskara ikasten Madrilgo Euskal Etxean, baita erabat euskaldundu ere. 2003tik Amsterdamen bizi da Herrialde Katalanetako Cristina Richarte emaztearekin. Bien artean sortu berri dute Zirimiri Press argitaletxea, euskal literaturako obrak nederlanderara itzultzeko. Elkarlanean idatzi eta ilustratu dute *Nederland is mijn fantasie* eleberri grafikoa ere. Henrikek *alter ego* euskalduna du: Ander. Euskal Herria eta euskara beti daude presente bere bizitzan eta imaginarioan.

• P E R T S O N A I A •
Henrike Olasolo





tarik irakurtzen dut: Holandako egunkariak, nazioarteko egunkariak... baina, batez ere, euskarazko prentsa kontsumitzen dut, nire informazioa hemen osatzen da, ni oso jakinaren gainean nago hemen gertatzen denari buruz, eta beraz euskalduna naiz, hori da nire mundu ikuskerara. Baina egia da ez naizela hemen bizi, eta holandar identitatea eraikitzen ere ari naiz. Han bizi naizelako. Nire bizilekua Amsterdam da eta nire naziotasuna edo kultur identitatea euskalduna.

Zer da *Nederland is mijn fantasie*?

“Nederland nire fantasia da” litzateke euskaraz. Autofikzioa da, eta bi pertsonaia nagusi daude. Bikote bat da, Holandara joaten dena bizitza berri bat hastera. Haien zat Holandia-ia paradisu da, fantasia bat. Horregatik titulua. Pentsa AEBetara joan ziren italiarren zat, edo irlandarren zat edo euskaldunen zat... Haien zat Amerika paradisu zen, aza handien hazten zen lurraldea, aberastasunaren herria..., ba, bi pertsona hauentzat Holanda horrelakoa da, ez zentzu materialean, baina bai zentzu existentzialean. Zentzu batean, oso era inuzente eta *naif*-ean begiratzen diote errealitateari, baina konturatuko dira euren biografiengatik daudela Holandan. Eva kataluniarra da eta Ander euskalduna, eta Holanda beste Euskal Herri bat da eurentzat, edo beste Katalunia bat. Holandan batzuek pentsatzen dute Holandari buruz ari dela liburua, ez gure fantasiari buruz, eta diote Holandari buruzko apologia dela, baina ez da hori kontua, kontua gure fantasiaz hitz egitea zen, eta Holandak guretzat sinbolizatzen duenaz eta, hain zuzen, fantasia hori eraikitzeko beharraz.

Zuen *alter ego*ek zuen antz handia dute?

Bai, oso antz handia, geu gara liburuan gaude-nak, baina orain liburu hau idatziko banu beste

era batean idatziko nuke. Batzuetan nik ez dut Anderrek bezala pentsatzen. Lehen Anderrek bezala pentsatzen nuen, baina orain ez hain-beste. Herri txikiaren kontzeptu horri oso baliagarria deritzot Holandan Euskal Herriari buruz hitz egiteko, baina denborarekin konturatu naiz agian Holanda ez dela hain txikia. Holandak badauka bere historia koloniala. Geografikoki herri txikia da, baina ez dauka bere existentzia kolokan dagoen sentimendurik. Holandarrek ez dute desagertzeko beldurrik. Baina badago elementu bat sentimendu horretara hurbiltzen duena: ura, itsasoa. Itsasoa da Holandaren mehatxua, eta zentzu horretan bada herri txikia. Urak betetzen du hemen estatu handiek betetzen duten rola. Kontua da uraren arazoa oso ondo menderatu dutela, baina beti izango da mehatxu. Holanda herri txikia da beste zentzu batean ere. Herri txikietan inork ez ditu gauzak zure ordeztu egi-ten. Euskal Herrian euskaldunek ez badute euskararen gaineko ardurarik hartzen, beste inork ez du hartuko. Sentimendu hori ez da existitzen Frantzian edo Espainian. Holandan bai. Dena den, esan daiteke Anderren Holanda Henrikerena baino fantastikoagoa dela.

Euskaraz irakurtzeko modurik izango da?

Bai, nahi nuke. Gainera, herri protagonista Holanda izan arren euskaldunek hobeto uler dezaketela uste dut.

“Atzerrian zaudenean beharrezkoa da leku bat bilatzea, bertatik zure buruari begiratzeko” aiparekin hasten da liburua. Nondik begiratzen diozu zuk zure buruari?

Ezinezko puntu batetik, oinak Holandan eta burua Euskal Herrian izatea ahalbidetzen didan leku batetik. Fantasiaren kontzeptuaz gain bi estrategia edo tesi biltzen dira liburuan. Bi tesiak liburuaren hasierako bi aipuetan

laburbiltzen dira; bata Evarena litzateke, eta dio “plazera une batean kontzentratzea besterik ez da, izatek ihes egitean datzan prozesua”. Levinasen aipu bat da. Zuk auke-ratutako esaldia Anderren tesia da eta dio atzerrian zaudenean ezinbestekoa dela leku bat aurkitzea bertatik zure buruari begiratzeko. Esaldi hori Shingurena da. Identitateaz hitz egin nahi genuen



bi jarrera horietatik abiatuta. Azken batean, bi kontzeptu daude, bata identitatearena da eta bestea, identitate ezarena zentzu positiboan. Bi gauza esan daitezke zure identitateari buruz galdetzen dizutenean, nik bi gauza esan baititzaizkete Euskal Herriari buruz: esan dezaket euskalduna sentitzen naizela, eta egia da, baina hori ez da hain garrantzitsua, askoz ere garrantzitsuagoa da esatea ni Euskal Herriaz maiteminduta nagoela. Norbaitekin edo zerbaitekin maiteminduta egotea miraria da, zure burua ahazten zaizulako. Pianoa jotzea bezala da, pianoa jotzen benetan gozatzen ari bazara zure burua ahazten zaizu, denboraren kontzientzia galtzen duzu, ez dakizu zenbat denboraz ari zaren pianoa jotzen eta bat-batean diozu nor naiz ni? Non nago ni? Eta prozesu hori askoz ere interesgarria iruditzen zait norbere buruaz pentsatzea baino. Bi prozesuak osagarriak dira, baina kontrajarrita datoz liburuan. Alde bate-tik, Anderrek egiten duena psikoanalisi moduko-a da. Nor naiz ni?, zergatik nago hemen?, zer bilatzen dut hemen?, zer da Euskal Herriaz eta Holandaz gustatzen zaidana?... Eta Evak guztiz kontrakoa egiten du: momentuari plaze-ra hartu, momentuak atsegin egin...

Irudietako batean Anderrek Euskal Herriko mapa marrazten du hondarretan. Askotan egin izan duzu zerorrek?

Zentzu metaforikoan bai. *Nederland is mijn fantasie* animazioaren eta liburuen eszena garrantzitsuenetakoa da. Mapa marrazten duen bitartean Anderrek Euskal Herria eta Holanda antzeko herriak direla azaltzen dio nederlander bati. Hiru esalditan azaltzen du zergatik. Anderrek dio hiru motatako herriak daudela: herri maskulinoak ala femeninoak, herri txikiak ala handiak eta herri indibidualistak ala kooperatibistak. Eta Euskal Herria eta Holanda herri txikiak, femeninoak eta kooperatibistak direla. Eszena horrek laburbiltzen du Anderren barne mundua. Herbeheretako mapak eta Euskal Herrikoak berez ez dute

Henrikeren alter egoaren, Anderren irudia eta Euskal Herriko eta Holandako mapak bat eginda. Zera dio, nederlanderaz: “Ikusten? Zabaleraren erdia... baina hiru miloi biztanle bakarrik...”.



antzik, eta ez dute elkarrekin ezer osatzen ikuspegi normal batetik. Baina irudi horretako perspektibari esker bi mapak mapa bakar batean marraztea lortzen du Anderrek. Eta hau da Anderren desioa: ezinezko irudi bat osatzea, Euskal Herria ikusteko gauza ez direnei Euskal Herria ikusarazi diezaikeen ikuspegi bat eskaintzea. Gertatzen dena da holandarrek Herbeheretako mapa ikusten dutela argi eta garbi eta euskaldunek, berriz, Euskal Herrikoa, baina oraindik ez dut bi mapak ikus ditzakeen inor aurkitu.

Zer sinbolizatzen du zure aitaren xisterak?

Iaz *Small nations, big games* (nazio txikiak, joko handiak) dokumentala egin nuen Jan Kuiper zuzendariarekin batera [sustatu.com/1252355587], aitaren xistera elementu sinbolikotzat hartuta. Film honetan pilota hitzaren metafora da. Protagonistak ezin du euskal arazoaz mintzatu. Filma aurrera doan heinean ezintasun hau gainditzen du eta era berean sekula egin ez duena egiten hasten da: aitaren xistera hartu eta pilotan jokatzeko. Oso planteamendu argia aukeratu zuen Janek, nederlanderrei zuzenduta. Filma Herbeheretako tradizio “anti-intelektualaren” barnean kokatuko nuke. Dokumentalgintza tradizio honetan gauzak ez dira azaltzen, erakutsi egiten dira. Eta film honetan euskal arazoa tabu bat dela erakusteko oso indartsua den isiltasun momentu bat gertatzen da. Wittgensteinen esaldi famatuak dioten bezala: “Zerbaitez ezin bada hitz egin isildu egin behar da”.

Dokumentalean Euskal Herriko politika tabua dela iradokitzen da.

Arazoa Espainiako inkontziente kolektiboa dela esango nuke. Inkontziente horren barnean hitzek beste esanahi bat dute eta guretzat positiboa dena negatiboa da haientzat. Tabua da guztiek onartutako esanahiei buelta ematea. Azken batean, benetako boterea duena hiz-

kuntzaren kontrola duena da. Hori *Alizia mundu miresgarrian* liburuan oso ondo azaltzen da. Aliziak dio: “Kontua da hitzen esanahia aldatzeko gai zaren ala ez”, eta Humpty Dumptyek erantzuten du: “Kontua da nork agintzen duen, eta kito”. Espainiako imaginario kolektiboan “euskal” hitza xenofobiaz erabiltzen dela esango nuke eta, gehienetan, ohartu ere egin gabe. Kezkatzen nauena da euskaldunok ez ote dugun inkonziente kolektibo hori, oharkabean, gurera inportatu. Kolonizazio mentala ikusten dut hemen.

Era berean, Euskal Herria Espainian obsesioa dela esaten duzu doku-mentalean. Zein zentzutan?

Euskal Herriak Espainia hitzaren esanahia mugatzen duelako. Kataluniak eta Euskal Herriak espainolei erakusten die ez direla uste duten bezalakoak. Eta hori onartzean dago arazoa. Holandatik Espainiara begira gauza batek harritzen nau: Espainian errealtatea den bezala onartzeko ezintasuna dute. Ez bakarrik politikari eta gai handiei dago-kienean, eguneroko jarrera arruntenetan bai-zik. Ez behar txikien edo gaixotasun arrun-ten aurrean ere zeharo ezberdinak dira jarrerak Espainian edo Holandan. Eta, beste alde batetik, obsesionatuta daude interes politiko berezia dagoelako hori horrela iza-teko. Euskal Herria *chivo expiatorio*-a da Espainiarentzat: gaitz guztien iturria.

“Euskaldun gisa, beti zara barbaroa edo terro-rista” ere entzungo dugu.

Euskaldun batek bi era dauzka Espainian egoteko: edo espainiar gisa –eta horrela bada munduko pertsonarik onena izango da: noblea, ausarta, eta abar– edo “barbaro” gisa. Zaila da bigarren kasu honetan hitz bat aukeratzea. Niri barbaro hitza gustatzen zait: “ulertzen ez zaiona”, “zibilizazioaren amaie-ra dakarrena” da. Testuinguru horretan terrorismo hitza sinonimoa da.

Orain gutxi Zirimir Press argitaletxea sortu duzue emazteak eta biok. Zein helbururekin?

Agian, Anderren eta Evaren munduak batze-ko. Alde batetik, euskal kultura zabaltzea eta ezagutaraztea da helburua eta, beste alde bate-tik, zoriontsu izatea. Euskara zoriontasun itu-rri da niretzat, eta baita Cristinarekin lan egitea ere. Oso ongi ikusten dut Zirimir Pressen egi-tasmoa gure ibilbide pertsonalean.

Euskal literatura gertutik jarraitu duzu?

Bai, euskararekin dudana kontaktu bakarra irakurtzen dudana da askotan. Agian nire

OFF THE RECORD

“Hator, hator...”

Abenduaren 24an gelditu ginen Henrike Olasolorekin elkarrizketa egiteko. Goize-ko 11etan. Taberna bateko mahaian eserita grabatu genituen haren hitzak, baina ez harenak bakarrik: hiru-lau aldiz baserritarrez jantzitako pertsona txikiak sartu ziren tabernara, txapel, zapi eta abarka, eta grabagailuak hiru-lau aldiz grabatu zuen: *Hator, hator mutil etxera...*

euskalduntze prozesuarekin lotuta dago-elako, baina, batez ere, belaunaldi batek izugarritzko eragina izan zuen nigan. Atxaga eta Sarrionandiaren eskutik hasi nintzen euskaraz irakurtzen, eta mundu berri bat erakutsi zidaten. Beti iruditu zait euskal idazleek, hizkuntza gutxitu bateko idazleak diren neurrian, lan *estra-sortzailea* egin behar izan dutela. Etxe handi batean bizi den idazlea gelaz gela ibili daiteke inspirazio bila, baina gela bakar bateko etxean bizi denak konpon-bide erradikalagoak behar ditu. Adibi-dez, paisaia baten argazki erraldoi bate-kin gela papereztatzea erabaki dezake nolabaiteko irekitasun birtuala bilatzeko. Eta zein paisaia bihurtuko du bere etxea: basamortu? Itsaso? Paisaia polar ala tro-pikal? Horrela ikusten dut garai bateko jarre-ra estra-sortzaile hori.

Hasteko, 1970. urtetik aurrera jaiotako ema-kumezko idazleen ipuinen antologia bat itzuli nahi duzue nederlanderara. Zergatik hautu hori?

Alde batetik euskal emakumezko idazle gazte asko eta oso onak daudelako eta beste alde batetik antologia horri abiapuntu pare-gabea iritzi geniolako Holandan euskal lite-ratura erakusten hasteko. Holandarrek duten Euskal Herriari buruzko irudiari erreparatu genion. Euskal Herria Espainiako probintzia bat besterik ez da holandarrentzat. Haien irudirako Espainia zer zen ikertu genuen eta honako hau deskubritu genuen: Espainia hitza aipatu eta holandarrei bi hitz etortzen zaizkie burura: bata “*temperament*” eta bestea “*machocultuur*” (matxismotik harago doan kontzeptu bat). Guk haiek Euskal Herrira beste leku batetik begiratzea nahi genuen.

Zenbateraino esango zenuke dela erromanti-koa, idealizatua Euskal Herriaz duzun irudia?

Ba agian bai, guztiz idealizatua. Baina nor-baitek hori esaten didanean, idealista Ander dela erantzuten diot. *Alter ego* bat izatearen abantaila.

Inoiz pentsatu duzu bizitzera Euskal Herrira etortzea?

Jadanik Holandaren eta Euskal Herriaren artean bizi naiz. Nik uste Holandan egoteak on egiten didala, distantzia ona da nire fanta-sia mantentzeko. Izugarritzko beldurra diot hona etorri eta Euskal Herrian gero eta eus-kara gutxiago hitz egiten dela ikusteari, Eus-kal Herria gero eta espainolizatuago dagoela aurkitzeari. ■

www.argia.com/argia-astekaria

helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.



argia **Egutegia 2010** Salgai dagoeneko

Aurrean

- Jai egunak eta egun seinatuak
- Santuak eta euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

Atzealdean

- Hausnarketa labur ospetsuak. "Pentsamendu txikiak"

Egutegia: 8 €

Egurrezko taula: 55 € + egutegia opari

Aurten mahai gaineko
euskarri berria
5 €



ESKAERAK:

943 37 15 45 • denda@argia.com • www.argia.com/denda

argia
www.argia.com

• Eliteko kirolari ohiak •

Ametsa bukatu da

Dirutza, fama, arrakasta. Eta buruan, asmo bakarra: hurrengo entrenamendua, hurrengo lehiaketa. Egun batetik bestera, baina, podiumetik jaitsi eta dirutzarik, famarik, arrakastarik, kirolik gabeko bizimodura ohitu behar dute goi-mailan arituek.

MIKEL GARCIA

Argazkiak: Dani Blanco

“EMAN DIZKIGUTE AUTOAK, zapatilak, denetik ordaindu digute... Famara eta dirura ohitu gara urte pilotan, eta bat-batean diru-iturria eten egiten da eta fokuak itzali, ez zara maitatua sentitzen, jendeak jada ez ditu deitzen, eta lehen gauzarik txikienarekin ondoan beti fisioterapeuta eta medikua izan dituzunean, orain gizarte segurantzara jo behar duzu. Berria da dena, berriz jaioko bazina bezala. Bizi izan gara beste frekuentzia batean eta tokatzen da gizartearen mailara egokitzea, frekuentziaz aldatzea. Kosta egiten da, ez gaudelako prestatuta, eta ez dagoelako horretarako baliabiderik, psikologorik...”. Horrela laburbildu du Andoni Imaz futbolari ohiak elitean aritu diren kirolari askori gertatzen zaiena erretiratzeke unea iristen denean, gazte oraindik.

Kasu dramatikoak ezagunak zaizkigu: Marco Pantani igotzaile handia txirrindularitzatik kaleratu zuten, dopinaren kontrako kontrol bat ez zuelako gainditu, eta kokaina gaindosi batek akabatu zuen; Jesús Rollán waterpolo jokalaria bere buruaz beste egin zuen, depresioa eta drogak tarteko; Agustín Sagasti txirrindularia urkatuta agertu zen duela gutxi, istripu baten erruz kirol profesionaletik erretiratu ostean. Muturreko egoerak dira, ez da arruntena, baina oro har trantsizio zaila dute gehienek: ikasketak gazteegi utzi zituzten, kirolari eman bizi dira, eta zortzi orduko lanaldia aurkitu —eta horretara egokitzen ikasi— behar dute orain, bizi-maila apaldu arren irabazitako dirua ez baita nahikoa mantentzeko.

Gainera, kolpetik iristen da egoera berria, gure elkarrizketatuek aitortu digutenez. Andoni Imazek, Joane Somarribak eta Abraham Olanok diote maila profesionalaren burbuilan gaurko partidarako eta biharko lasterketarako beste pentsamendurik ez dutela, eta etorkizunak ez duela lekurik. Oso bizimodu erraza dela uste du Olanok: “Badakizu zer egin behar duzun: entrenatu, deskantsatu eta jan, hori da txirrindularitzan inportanteena. Eguneroko

hori utzi eta derrepente beste arloko gauzez arduratu beharra, biharko egunean pentsatzea... gogorra egiten da”.

Eta orain zer?

Reala utzi eta Athletic-era aldatu zenean, lesio oso txar baten ondorioz futbola uztea erabaki zuen Imazek duela zortzi urte, 30 urterekin. Bere belaunaldiko gehien-gehienak bezala, ez zuen beste prestakuntzarik, ez zuen teknikari titulurik atera, eta etorkizunarekin zer egin deliberatzeko urtebete sabatiko hartu zuen: “Urte atsegina izan behar zuen, konpromisorik gabe, lagunekin alde batetik bestera joateko, bizikletan ibiltzeko... baina oso urte gogorra bihurtu zen, diskutitzen, edo bizikletan atera eta disfrutatu gabe. Parentesi hura bukatzean zertan hasiko nintzen ez jakiteak ezinegon sortzen zidan, ondoeza. Umetatik izan duzun ametsa bete duzu, baina oraindik gazte zarela bukatu da ametsa, urte asko dituzu aurretik eta erabaki behar duzu zer egin dezakezun eta zer egin nahi duzun hemendik aurrera”.

Lagunartean eta etxean bilatu zuen aholkua, baina ez da erraza lagunek aintzat hartzea; nolako kezkak dira horiek, nahi duzun guztia duzula uste dutenentzat? Azkenean, gauzak bide onetik joan zaizkio Imazi, lehenengo Tolosako kiroldegia lotuta, Belca enpresarekin ondoren, kirol-klinikako koordinatzaile egun. Aldiz, sarri bestelakoa da egoera, egunero kirolariarekin lan egiten duen Iñaki Arratibel medikuaren esanetan: askok uste dute bukatu eta dena eskura izango dutela, arrakastatsuak izan direlako, baina gehienei ez die funtzionatzen; “bizitza arrunten zein zara? Etorriko da norbait zu baino famatuagoa, eta atzean geratuko zara. Uste dute komertzial sartu (asko horretan sartzen dira) eta ugari salduko dutela, euren izenagatik, baina konplikatuagoa da”.

Hain zuzen, Imazen inguruko gehienek komertzial lana hautatu zuten. Beste hainbat,



**"Eman dizkigute autoak, zapatilak,
denetarik ordaindu digute...
Famara eta dirura ohitu gara urte
pilotan, eta bat-batean diru-iturria
eten egiten da eta fokuak itzali,
ez zara maitatua sentitzen"**

ANDONI IMAZ

entrenatzaile ikastaroa egiten ari dira, ondoen ezagutzen duten mundura, futbolera, itzuli asmoz. Eta aldaketa asimilatu ez zuenik ere ezagutzen du, behea jo zutenak, edota oraindik ere buelta eman nahian kili-kolo jarraitzen dutenak. "Tamalez, edaria irteera oso erraza izaten da kasu hauetan", dio.

Ez da garai ona bizikleta-denda irekitzeko

Zortzi urterekin lasterketen munduan murgildu zen Joane Somarriba. Txirrindularitza zuen bizitza, harik eta erabaki zuen arte ama izan nahi zuela eta profesionalki une onean egon arren (Munduko Txapelketan bigarren geratu ostean) utzi egingo zuela, 34 urterekin. Bi ume ditu orain, eta eurekin disfrutatzeko lanik egin gabe egon da denbora batean, baina lana topatzeari ekin beharko ziotela



**"17-18 urterekin lasterketetan ondo
moldatzen diren gazteek profesional
izatea dute gogoan eta ikasketak
albo batera uzten dituzte,
baina txirrindularitzan gehienez 35
bat urtera arte egongo dira"**

JOANE SOMARRIBA

segituan konturatu ziren senarra eta biak, senarrak ere, Ramon Gonzalez txirrindulariak, kirola utzi zuelako. Ateak jotzen hasi zirenean, ordea, ikusi zuten zaila zela kirolarekin loturiko jarduna aurkitzea. Bizikleta-denda irekitzea otu zitzairen, baina inbertsio handia da, eta krisi garaian erabaki zuten ez zela negozioa irekitzeko unea.

Azkenean, emakumezkoen Espainiako txirrindularitza selekzioan entrenatzaile postua lortu du Gonzalezek, baina ez dela finkoa azaldu du Somarribak, eta berak ere lanari heldu nahi diola. "Sakrifizio aldetik, kirol gogorak egin izanak asko erakusten dizu eta zailtasunen aurrean borroka espiritua barruan daramagu", dio gernikarrak. Hala ere, faltan bota du ikasketa gehiago egin ez izana, bizitza laburra duelako goi-mailako kirolak: "17-18

urterekin lasterketetan ondo moldatzen diren gazteek profesional izatea dute gogoan, ikasketak albo batera uzten dituzte eta hor etortzen da benetako arazoa, txirrindularitzan gehienez 35 bat urtera arte egongo direlako eta ondoren urte asko geratuko zaizkie aurretik”.

Txirrindulari askorekin aritua da Iñaki Arratibel medikua, eta aholkulari lanak egin ditu behin baino gehiagotan, eguneroko lanean, entrenamenduetan, hoteletan... sortzen diren elkarriketak medio: Ferrarya edo txaleta erosi nahi dutela entzun dienean, hainbeste diru gastatzeak dakartzan arriskuez ohartarazteko premia izan du Arratibelek: “Diru asko mugitzen den kirolean handiagoa da arazoa, futbolearen esaterako. Adin horrekin 60 milioi euro jartzen dizkizutenean, ez duzu kontrolatzen, gastatu beste era batera egiten duzu, eta gero datoz arazoak. Begira zer salto urtean 60 milioi irabazteak ezerezeraz...”. Berdin ohiturekin: batetik bestera bidaiatzen aritzetik etxean sartzeko edo zereginik ez izatea latza izan daiteke; dena eskura duzula bizitzetik eguneroko arduretara moldatzeak arazoak ekar ditzake elkarbizitzan.

Dena den, Euskal Herriko kirolariak diru kontutan zurraragoak direla dio Arratibelek: “Andaluzian esaterako, diru gutxiago irabazita ere, erregeen pare ibiltzen dira. Eta nik esaten diet: ‘Ez al duzu ikusten honekin nahikoa daukazula ondo bizitzeko, eta gehiago erosten baduzu gero ez duzula diru nahikorik izango?’. Baina han ez didate kasurik egin, egunerokoan dute burua, momentua ondo bizi nahi dute, eta hemen gehiago pentsatzen dugu etorkizunean”.

Txirrindularien patua

Salbuespentzat du bere burua Abraham Olanok, txirrindulari gehienek ez baitute diru erreserbarik izaten berak bezala urtebete lasai hartzeko, eta lehenbailehen hasi behar dute



“Ohituta zaude zer egin jakitera, egunero berdin, gosalduta eta bizikletan atera. Kolpetik hori galtzen da, ez duzu lanbiderik, ez duzu ikasketa nahikorik, zure irudiaz aprobetxatzea ez da beti erraza... eta denek ez dute berdin asimilatzen”

ABRAHAM OLANO

laudorioetara eta bizimodura gehiegi ez ohi-tzeko, eta aldaketaren presioari aurre egiten jakiteko. Helburu horrekin, Espainiako hiruzpalau erkidegotan Kirolariarentzako Arreta Bulegoa ireki dute (Nazioarteko Batzorde Olinpikoaren laguntzaz), besteak beste zerbitzu juridikoa eta psikologikoa eskainiz. Profesional izan bitartean laguntza ematen dute hainbat alorretan, eta utzi ostean ere, jarraipena egitea da asmoa, bizimodu berrira nola egokitu diren ikusten joateko.

Zailtasunak zailtasun, gure elkarriketatuek argi dute ez lioketela muzin egingo bizitako esperientziari. Andoni Imazek ez du zalantzarik, belauna txikituta bukatuko zuela aurretik jakin izan balu ere, berriz jaioz gero futbola aukeratuko luke: “Amets bat bete dut, eta ametsak betetzea ez da erraza”. ■

lanean: “Lagunei horrela egokitu zaie eta gogorra da, ohituta zaudelako zer egin jakitera, egunero berdin, gosalduta eta bizikletan atera. Kolpetik hori galtzen da, ez duzu lanbiderik, ez duzu ikasketa nahikorik, zure irudiaz aprobetxatu ahal izatea ere ez da beti erraza... eta denek ez dute berdin asimilatzen. Kirol profesionalean aritutako askok izaten ditu depresioak, batez ere lehenengo urteetan”.

Anoetarak duela sei urte utzi zuen txirrindularitza, 33 urterekin. Berak ere, karrera punturik altuenean uztea erabaki zuen, gainbehera hasi baino lehen. Unipublic enpresan hartu aurretik, zalantzarik etorkizunak sortu zizkion kezka handienak, baina gaineratu du ez ziola beldurrik edozein motako lana egin behar izateari, kontuan hartuta duela urte batzuk lana egon bazegoela.

Alegia, kirol ibilbidea bukatutakoan ez dela mundua akabatzen. Burua ondo jantzita izatea da gakoa, profesional zarenean jasotako

www.argia.com/multimedia
helbidean, erreportajearen diaporama.



Itzalaldi jenerala

Jakina denez, hiru modu daude telebista ikusteko: analogikoa, digitala eta sutan amorratua. Lehenengo gaur egungo telebista da, ohikoa, zaharra, egutegi jakin baten arabera itzali egin beharko dena. Bigarrena telebista analogikoa ordezkaturiko duena da, kanal gehiago izateko, irudi eta soinu kalitate hobeagoarekin. Telebistako zati aktibo bilakatuko gara gainera, bozketetan parte hartu ahalko dugu eta gure iritzia eman telebista-saioetan. A zer gozamen deskodegailua piztu eta eternitatera pasako zaren beste kalakari bat bezala, horoskopok iragartzen duenaren guztiz kontra, lan istripuan hil diren horiek kontent daudela argudiatzea. Ez dute aurten zorte txarrik izango! Itzalaldi analogikoa iristen denean, seinale digitala jasoko duen hargailua beharko du gure telebistak, LTDa (TDT). Ez baduzu instalazioa egokituta, etxeko administratzailearekin hitz egin edo mantentze lanaz arduratzen den telekomunikazio-instalazioarekin edo antena konpontzailearekin, edota, labur, hirurei deitu, eta hark edo honek jarriko dizu, non ez dakit, baina, lasai, emakumea, zaude ziur egokituko dizutela antena LTDra. Itzalaldi analogikoa emisio analogikoen amaierarako jarri duten data da. Oro har, aurtengo apirilaren 3an emango da. Baina Itzalaldia ez da bat-batean emango. Eskerrak! Pentsa epailearen aurrean salatzen zaudela kolpeak jasan dituzula buru eta testikuluetan. Poltsa ere aplikatu dizutela behin baino gehiagotan eta elektrodoak egingo zizkizutela mehatxatu zintuztela. Postura bortxatuetan egotera eta flexioak egitera behartu zaituztela denbora luzez, pentsa hori guztia salatzen ari zarela epailearen aurrean, eta seinale analogikoa itzali egiten dela.



José Luis Padrón

Rozas

Urkiza

Pentsatze hutsarekin! Ez, gizona, lasai, iragarkien bitartez eta telebistan agertuko diren azpтитuluen bitartez abisua pasako digute-eta. Prozesua fase desberdinetan, apurka-apurka burutuko da, oherakoan bezala, aurrena antiojuak kendu eta ondoren hortz postizoak ontzi batera. Nolanahi ere, berandu gabiltza. A Fonsagrada galiziar herri txikia (Lugoko probintzia) izan zen telebista analogikoren teknologia utzi eta digitalean bakarrik emititzen hasi zen lehena. Beste aldaketa historiko bat, gurean aurreikusitako data baino bi urte arinago eginga. Hango lurra hemengoa baino interferentziarik gabeagokoa izan baita beti kazikeentzako kanalekin. Gertakaria “jakintzaren gizartean bete-betea sartzeko aupadatza” jo zuen Xuntako presidentek. XXI. mendeko telebistari ongietorria. Arratsaldeko 14:00ak baino lehen seinale analogikoa desagertu zen Galiziako herri txikian. Urrutiko (badaezpada) agente baten bidez eman zioten Touriñok eta ume batek amaiera telebista analogikoari, jai-giroan. Lehenengo telebista 1961ean iritsi zen A Fonsagradara, eta biztanleek aurrenekoz ikusi ahal izan zituzten irudien artean Vasco da Gama eta Real Madril taldeen arteko futbol partiduenak daude, O Burato tabernan, eta “primeran” ikusi omen zen, garaiko egunkariet diotenez. Bost hamarkada geroago, haietako teleikusle batek, Amadorrek, teknologia berriaren etorrera ospatu zuen, arratsaldean futbol partidua etxean ikusteko aukera emango ziolako, orain arte ez bezala, inora mugitu beharrik gabe, eta deiar egin zuen: “Handia inbentoa, gero!”. Eta hirugarrenaren zain egongo zarete, baina ez dut telebista ikusteko hirugarren moduaz jarduteko umorerik. Zinez eta benetan, beharrezkoa irizten al diozue? ■

Itzalaldi analogikoa emisio analogikoen amaierarako jarri duten data da. Baina Itzalaldia ez da bat-batean emango. Eskerrak! Pentsa epailearen aurrean salatzen zaudela kolpeak jasan dituzula buru eta testikuluetan

Rosa Maria Martín Salazar

EHUKO IRAKASLEA ETA IKUS-ENTZUNEZKOETAN ADITUA

Zertarako balio du kazetari batek?

Errealitatearen kronista izateko, munduan zehar gertatzen dena ikusi eta entzun ondoren, etxean lasai dagoenari kontatzeko. Halaxe erakutsi zidaten fakultateko lehen urte haietan. Ikasgaiak ez zuen erabat suntsitu nik hamaika urterekin amestu nuen ametsa, baina apalegia iruditu zitzaidan helburua. Adin hartan kazetaria izan nahi nuela erabaki nuenean, munduaren aldaketa nerabilen buruan, nolakoa eta horrelakoa behar zuen kazetariaren xedeak. Egun haietan hil zen diktadore bat, eta etxean eta auzoan horrenbeste esan ziguten honetaz eta hartaz hitzik ez egiteko, niri dena kontatzeko grina piztu zitzaidala. Hain neukan argi orduan errealitatean gertatzen zena kontatuz gero, mundua hobetuko zela... Ez hain baikor eta utopiko, baina antzeko mitoa eraiki zidaten unibertsitatean izan nituen irakasle gehienek. Eta oraindik ere, orri hauen arduradunen buruan militantziatik hurbil dabilen mito berberak darrai.

Albistegintza ogibide modura utzita, ikerketa akademikoa burutzea egokitu zitzaidan. Kazetaritzaren funtzioaz galdetu genien ikus-entzunezko hedabideetako kazetariak. Erantzunek aire berria ekarri digute: informazio zorrotz, objektibo eta inpartziala emateaz gain (ohikoa), “azkar” eman beharra aldarrikatzen



INIGO AZKONA

dute, baina horrekin batera, “eguneroko bizitza errazago egingo duen informazioa ematea” eta “ikusentzulegoa entretenitzea” omen dira kazetariaren gaurko betebeharrak. Aitzitik, inkestatu gehienen ustez, ekidin beharrekoak lirateke ondorengo hauek: gatazketan bitartekaritza lana egin, eragina izan eta iritzia sortzea.

Urte amaierarekin batera argitaratu du 2009ko balantzea Mugarik Gabeko Kazetariak elkarteak: munduan 76 kazetari erailda, 33 bahituta, 500 baino gehiago atxilotuta. Gerrak eta hauteskundeak izan omen dira arriskurik suminena sortu dutenak, hots, boterea aldatzeko giltza-egoerak.

Herri honetan ere sua pizten ibiltzen diren lerro editorialak pairatzen ohitu gara. Hedabide piromanoak. Etengabe sua pizten jarduten duten zuzendaritza-taldeak: batzuk *status quo*a berretsi guran, hauts-saltzaile bilakatu direlako; beste batzuk, iraultza erdietsi ezinik, subertsioa suaren beren bertsioarekin nahastu dutelako.

Kiskalitako eta argi-txakurrez betetako eremu latz honetan, ondo daki kazetari bakoitzak nola piztu eta nola baretu giroa. Euskera klaro batean: premiazkoa da kazetariak bitartekaritza lanari eustea eta bakearen aldeko iritzia sortzea. Zeruko argia ke artean goibeldu baino lehenago. ■

« Premiazkoa da kazetariak

bitartekaritza lanari eustea eta

bakearen aldeko iritzia sortzea.

» Zeruko argia ke artean

goibeldu baino lehenago

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Esaten ikasi genuen Bidasoa zubi gabeko aldetik gurutzatu ondorengoentan, gure “etxera”ri min gainaz aho-sabaia joz. Senideak eta Ahai-deak ere batera erabiltzen hasi ginen. Nago eta naiz ere. Aurrerakuntzak. Aitzinamenduak. Aurtengo lehen larunbatean autobusez egin genuen San Mameseko ondoko plazara. Bi belaunaldi batera, ez nahasian, ekin genion bi kilometroko manifestari, Etxerat-ekoei debekatu eta auzolanean lehen auzoek orru egindakoari. Zapi zuridunak ikusi genituen aitzinetik pasatzen, gutxitan adierazteko aukeran pozak harturik desfilatzen. Lagun

Etxerat

zenbait tarteko, ezagun batzuk eta gainerakoetan oro kide. Aritmetikan dorpe, mundua iruditu zitzaidan ikusten nuen jendetza, biharamunean berrogei milatik gora osatzen ei genuena. Itzulian, autobusean noski, inor ez zegoen lo kuluxkarako, arrakastak dakarkigun euforia bizigarri. Elkarri agurtzeak ere nekea sortzen duen egoeran etxeratu ginen, batera zerbait bagarela jakitun eta berrirori ere bateriak lepo eginda. Auzolanak berdinduko gaitu menu adostuan eta lanak zintzoki partekatzean inork inor baztertu eta iraindu gabe. Euskal presoak etxera Etxerat-ekin batera. Horra menua. ■

Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Sentitu, pentsatu, egin

Askori oso ezagunak, ezagunegiak egingo zaizkizue izenburuko –sentitu, pentsatu, egin– hiru aditz hauek orden horretan jarriak. Beste askori ezagunak baino aspergarriak ere bai.

Barkatuko didazue, aita beranta izan naiz eta atzerapenez iritsi naiz Pirritx eta Porrotxen unibertsoa. Eta unibertsoa diot Kur-saaletik etorri berria naizelako, eta BECen gertatutakoaren berri ere izan dudalako. Eta segitu aurretik barkamenak eta, era berean, eskerrak eman beharrean nago Josu Martinezi. Hark azaldu baitzidan, neronek zuzenean jaso aurretik, hiru hitz horiek gordetzen duten philosophia, *Itsasoaren alaba* bere dokumental zoragarri eta hunkigarriaren Donostiako Zinemaldian egin aurkezpenaren ondoren hartutako tragotik tragorako tartean.

Josu omen da sudur gorrien *fan*-ik sutsuenetakoa eta halamoduz portatu zen. Hitz gutxitan: “Ai, zeinen lehorrak garen euskaldunak sentimenduak azaltzeko momentuan!”. Zenbat kostatzen zaigun “maite zaitut”



INES URRUTIA

esatea. Zein gaizki konbinatzen ditugun izenburuko hiru aditzok.

Banan bana erabiltzea errazagoa gertatzen zaigu nonbait. Eta alor guztietan gainera. Sentitu asko sentitzen duenik bada noski. Baina ezin bigarren pausoa eman. Bada sentitu eta bigarrenetik hirugarrenera jauzi egingen duenik. Sentitu eta egin. Bada bigarrenetik aurrera egin ezin duenik. Pentsatu eta pentsatu... Beste konbinaketa posible bat:

pentsatu eta egin. Baina sentitu gabe. Muinik gabeko hezurra. Eta badira egin eta egin aritzen direnak, ez sentituz eta ez pentsatuz. Eta konbinaketa hauek sartzan dira armak eskutan dabilzanak eta legebiltzarrean esertzen direnak.

Ai! Zeinen ondo joango litzaigukeen hirurak konbinatuz gero.

Espero dut Izarok, Josuren antzera, heldutakoan hirurak konbinatzea, nik egin nahiko nukeen moduan.

Milesker (Takolo), Pirritx eta Porrotx. Bihotzarekin sentitu, buruarekin pentsatu eta bi eskuak elkar bilduz egin. Orden horretan. Hobe-to joango litzaiguke. ■

« ‘Ai, zeinen lehorrak garen euskaldunak sentimenduak azaltzeko momentuan!’.

Zenbat kostatzen zaigun ‘maite zaitut’

esatea. Zein gaizki konbinatzen

ditugun izenburuko hiru aditzok



TXANDAN

Joxerra Garzia

Etorriaren ekarria



E m o -
ziozko
olatua-

ren eraginpean egin dira BECeko bertso finalari buruzko iruzkin gehienak. Ez da harritzekoa.

Ia hamabost mila lagun biltzea ez da huskeria, are gutxiago biltzeko arrazoia euskara hutsezko jardun bat bada, gaur egungo ikusgarrien irizpide estandarren arabera erabat geldo eta aspergarritzat jo beharko genukeena. Uste dut jende asko horrexek emozionatu zuela gehien, eta zilegi da noski (askoz handiagoak izanik, askoz gutxiagorekin emozionatzen dira gure auzotzar biak, zein bere hizkuntzan, inolako lotsarik gabe).

ko emozionatuko ziren, eta izango zen Maialenek (eta ez beste inork) irabazi zuelako poztuko zenik ere. Zilegiak dira noski emozio eta poz modu horiek guztiak.

Ni neu, azkenean txapela irabazi zuen bertsolariaren bertsokerak emozionatu ninduen gehien, maila horretan behintzat aurrez beste inork jorratu gabeko bidea baita. Bertsokera berri horretan, bi alderdiok bederen aztertu (eta gozatu) beharko dira patxadaz: barne-begiradaren protagonismoa (eta fintasuna), eta barne begiz ikusitako hori entzuleok ere barne begiz ikusteko moduan formulatzeko ahalegin berritzaile eta eskerga. ■

Beste batzuk, berriz, emakume batek irabazi zuela-

Kaikuen eta kankarroen ipuina

Bazen behin, artean munduak mendi horirik ez zeukala, lur guzti-guztia nabar eta laua zenean, herri bat, ezelako eta inolako muinorik ez zuena.

Garai hartan, biribila izan ordez, guztiz arteza zen ludia, eta ez zitzaion ortzi-mugarik ezagutzen planetari. Herri hartan, erreka bakarrari zerion ura, metal-ur gozo askoa. Baina, ur horrek ez zekien norantz abiatu. Astelehenetan alde baterako joera hartzen zuen. Asteartean paduran ahitzen zen. Eta asteazkenetan bestalderako zaletasuna pizten zitzaion.

Herri hartako biztanleek, zahar edo gazte, txiki nahiz handi, ezin bestela eta, munduaren ordeka eta zelai izate itolarri hura sufritzen zuten denek. Ibaiaren emari ganorabako eta ur-etorri txoroak pairatzen zituzten. Halamoduzkoa zen hango bizitza. Beste hainbat lekutan legez. Zeren halamoduzkoak baitira toki guztietako bizimoduak; arraroetan, arraroenak izanik ere.

I LOVE MY HEART. Halako batean, zoratu egin zen bertako jendea. Zuria, beltz iruditu zitzairen. Beltza, fuchsia. Iparra, hego. Horia, berde. Berdea, more. Herriko nahikoa ez eta kanpotik hasi ziren gauza denak ekartzen: patatak, azak, haratuzteetako kauserak, sanjoan sagarrak, urdaiazpikoa eta barbarinak. Gonak, prakak eta jakak. Ematen zuen herriaz nardatu zirela... Torlojuak eta bihurkinak. Dena zekarten kanpotik. Baita hizkuntza ere!

Hasieran, grazia egin zien kanpoko mintzo berriak. Modernoa iruditu zitzairen ondoren. Sinpatikoa eta desberdina. Bat barik, hiru hizkuntza ere bazituzten herri hartan lehenagotik. Baina, horiek nahikoa iruditu ez eta hura izan zen berria ikasi beharra, hura! Hizkuntza-sukarrik baldin bada inon, hangoa bai sukar kiskali eta ezin eramana. Eta telebistak sustatu zuen berrikuntza. Eta irratia. Eta Internetek... Legebiltzarrak. Lehendakaritzak.



INIGO AZKONA



Lotsa guztiak galduta kantatu

zion poetak lehendakariari:


'Edukiko bazenu/ osorik burua/

etzenuen egingo/ holako

marrua./ Jakinduri gutxiko /

bai lagun arrua,/ ontzia izanez

gero/ a ze kankarrua'



irudia:

Antton Olariaga

CALL CENTRE. Inork ez daki zergatik, baina ezinago modan jarri ziren kanpotik etorritako buztingile batzuen pitxar bereziak, buztinezko plater karratuak eta hondorik gabeko edalontziak. Moda gorri-gorri horri segika, buztin egosiarekin egin zituzten herri hartan oheak, hiru hankarekin. Buztinarekin, labeak. Buztinarekin, hozkailuak eta mikrouhinak. Autoak. Trenak. Buztingintza hartako bezero-oldeen

pretentsioei erantzuteko, bulego zentrala eraiki zuten agintariek. Berria hura ere. Handik bertatik hasi ziren kudeatzen dei guztiak eta eskariak.

Egoitza hartan bertan zentralizatu ziren kanpoko produktuak, buztinezko horiek batez ere. Ondoren, kamioi erraldoiak hasi ziren garraiatzen buztinezko gauza haiek guztiak: ispiluak, telebistantenak, enkarguetara joateko saskiak, bikote ase-ezinentzako bibragailuak eta kontsolagailuak. Dena.

KAIKUARI, KANKARRU. Eromen haren baitako egun seinalatu batean, San Sebastian bezperatan egia esate aldera, denen harridurako, koblakari bat esnatu zen lozorro luzetik. Oholtzara igo zen. Mikrofonoa eskuan hartuta, kantuari ekin zion. Ez bat, ez bi, haizea aldatu zen orduan. Bat-batean. Emariaren norabidea erabaki zuen ibaiak derrepenteko batean. Eta, lehena ezagutu zuen ordura artean mendirik ez zeukan herri hark. Lotsa guztiak galduta kantatu zion poetak lehendakariari. Legebiltzarrari. Irrati-telebistari...

"Edukiko bazenu/ osorik burua/ etzenuen egingo/ holako marrua./ Jakinduri gutxiko / bai lagun arrua,/ ontzia izanez gero/ a ze kankarru".

Eta hori hola bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Kaputxino Kaikuen plazan. ■

Gotzain berriari jarriak



DANI BLANCO

I

Jesus jaio zenetikan
igaro den urte pila
konta izan digutenez,
gutxieneko bi mila.
Hark aldarrikatu arren
pakezko mundu trankila,
geroztik badabilkigu
gerra eta iskanbila.
Zure ikurtzat harturik
Belengo haurtxo umila
anai giroan bazatoz,
ongi etorri Munilla.
Baina itzali frankistek
piztu dizuten bonbila
ta abiatu Belengo
argi izpiaren bila.

II

Hogei eta hamaseian
pasatu zena pasata
guretzat hil edo bizi
Francorentzat "gerra santa".
Errugabeak lurpera
eta herriak asalta,
bizirik irten zirenak
malko ugari kostata.
Franko, berriz, paliopean
besterik ez genun falta!
eliza ofizialak
ohitura hoiek dauzka ta.
Esku baten gurutzea
eta bestean ezpata
ez degu nahi hori Kristok
erakutsia ez data.

III

Jesus izenburu dela
zenbat hitz eta idatzi
ahal bada mundutar denei
dotrina hori itsatsi
azken bi mila urteak
bide horretan doatzi
batzueri ez al zaie
lehen mezu hura ahantzi?
Batikanori txaloak,
goresmen eta goraintzi!
Horrek ez digu ematen
behar hainbat segurantzi:
milioika goseak hiltzen
eta berak urrez jantzi
hori ez al da Jesusen
dotrinaren alderantzi?

IV

Fede hori sentituta
nahi ez duena erratu
boterearen sailera
ezin daiteke lerratu
giza eskubide denen
bidexidorrak urratu
gorrotoaren urratsak
behin betirako borratu
eta munduko herrien
nortasun denak onartu
ideia soilengatikan
inor ere ez kondenatu
pakearen uso hura
etxe guztietan sartu
hura litzake denentzat
egizko Espiritu Santu.

V

Baina borroka bizian
hemen ditugu bi talde
ta zoritxarrez biktimak
alde bietan hor daude,
inoiz ez baita gerrarik
igaro izan debalde
gertaera latz honekin
inor gustura ez gaude.
Ez gera inoren aurka,
baizik Herriaren alde!
Gizarte hau egin nahian
pake hutsezko artalde.
Tunel beltz hontan argirik
nahi duen harek bestalde,
Herri honek zer nahi duen
ez beza Madrilen galde.

VI

Jakitez denok dakigu
zer den kristok esan zuna
guziok bete ezkeru
dotrina ederrentsuna
kezka dut jaso dugula
Satanasen oihartzuna
eta inpernu bihurtu
zeru izan behar zuna
dotrina honi aurkitu
nahi liokenak zentzuna
maitatu lagun hurkoa
ta gehiena behartsuna
eta inori ez egin
geuretzat nahi ez deguna
hola ulertu nahi degu
Kristo horren maitasuna.

DOINUA: Habanera.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.



Pedro
Alberdi

Literatura

Eibar, 1957. Bilbon bizi da. Bilbo Zaharra Forumeko arduraduna da, eta izen bereko Euskaltegiko irakaslea. Euskara bizibide du eta literatura bizigarri. Saioa eta nobela generoak landu ditu bereziki. Idazle bakartia da. Honatx bere buruaren beste definizio bat: "Eibarren jaioa eta Bilbon hazitako saio nobelatuen idazle iaioa". Carlos esaten zioten gizona saio nobelatuaz (Alberdania) jardun dugu Bilboko alde zaharrean.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Iñigo Azkona

«ETako jendeak ez du bizi zuena kontatzeko modua landu»

Satorrak baino lurperago liburuan 1960-70ko hamarkadak bildu zenituen. Zer da berriz, *Carlos esaten zioten gizona* delakoa?

Lehen liburua saioa eta kronika da, eta batez ere gizartearen kanpoko bizitzari buruz idatzi nuen: taldeez, belaunaldiez, *Ez Dok Amairuz...* Mario Onaindiaren *El precio de la libertad* autobiografia irakurri nuen eta harritu nintzen. *Satorrak baino lurperago* osatzera zetorren nolabait. Nire liburuak pertsonaren kanpoko soziologiaz hitz egiten zuen, eta aipatutako autobiografiak barne intimitateei leku egiten zien: herria, familia, koadrila eta barruko sentimenduei. Garaia osatuta zegoela ikusi nuen. Beraz, gaia ukitu nahi banuen, gauza berri bat egin beharko nuela pentsatu nuen.

Lehena saioa da, eta bigarren hau narrazioa. *Carlos esaten zioten gizonak* Unamuno saiakera saria irabazi zuen. Editoreak narratiba sailean kokatu du, baina niretzat liburua saioa da. Hau da, nik egun nobela idatzi beharko banu, ez nuke horrela idatziko. Egungo idazle batek hau bezalako nobela bat idazteak ez

dauka zentzurik, oso modu linealean idatzita baitago. Protagonistak jaiotzatik egin zuen ibilbidea kontatu dut. XIX. mendeko narratzeko modua da hori. Nik, aldiz, horrela planteatu dut: liburu honek aportazio bat egitekotan saiakeraren bidean egingo du, nobela soilaren bidetik ez. Dena den, saioa egiten dudanean saio nobelatuza egitea gustatzen zait, eta fikzioa egiten dudanean fikzio erreala. Niretzat dena bat da kasik.

Mario Onaindiaren autobiografian oinarrituta dago zure liburua, baita haren *Grand Placen aurkituko gara* eleberrian ere. Bigarren hori fikzioa da ordea.

Bai. Baina *Grand Placen* ere nahiko autografikoa da. Fikzioa da izenak aldatuta daudelako. Autobiografian eta *Grand placen*en kontatutakoak, biak ala biak, bat datoz.

Nor izan zen Carlos zuretzat?

Carlos ni baino zortzi urte zaharragoa zen. Eibarren ez nuen ezagutu, eta geroztik ere ia-ia ez. Bere liburuetatik zerak eman zidan

atentzioa: ETAn egon den jendeak –bai belaunaldi horrek, bai hurrengoak– zer gutxi kontatu duen eduki zuten esperientziak. Konstatazio horren ondoren, bizitako kontakizuna zaila dela suposatzen dut. Ez dago dokumenturik, beraz, ahozko kontakizunen bidez jasotakoarekin konformatu behar izan dugu. Eta nik ez nuen hori nahi, edo ez bakarrik hori. Ez nuen lan bat egin nahi “etar horiekin” hitz egin ostean. Publikatutako testuetan oinarrituta idatzi nahi nuen, dagoen materiala aprobeztatuz.

Satorraken bezala, honetan ere zu zeu satorra zarela dirudi, eremua ondo baino hobeto ezagutzen duzula, alegia.

Zer esango dizut... Niri garai hura bizitzea tokatu zitzaidan, baina ez barnetik. Nik etakideak edo klandestinitatean ibilitakoak izan ditut koadrilan, baina ni ez naiz ETAn izan, ez naiz kartzelan egon. Nire lagun minak bai ordea. Eta horrek asko markatzen zaitu. Modu batez, egon izan banintz bezala da, eta egoerari azalpen bat bilatu eta eman nahi diot. Hori guztia esplikatzeko nire burua esplikatzeko ari bainaiz. Zentzu horretan, 60-70ko hamarkadako gorabeherak bizi genituen batzuk garai hartan ainguratuta gaude, oraindik ez baitiogu erantzunik eman hainbat galderari.

Mario Onaindia nor izan zen? Irteera baten bila ihes egin zuen politikaritzat jo izan dute batzuek.

Ni ez naiz gizon politikoa, politikak ez nau bereziki erakartzen. Ezin dut gizon horren ibilbideaz hitz egin. Eskatzen badidazu Athleticeen azken bi hamarkadez idaztea, agian hobeto egingo nuke Onaindiaren ibilbideaz baino. Hau da, arlo politikoa ez da nirea, baina, halere, nik gai eta mundu horretaz idatzi nahi dut.

Zergatik erabaki zenuen kontakizuna 1968an amaitzea?

Bada, ez naizelako gauza garai haren ondorengo gertakariez idazteko.

Mundu hura film baten gisara agertu duzu.

Zuk esaten baduzu... Esaterako, lehen esaldietan immigrazioaz idatzi dut, Marioren familia Lekeitiotik etorri zeneko pasarteak. Eibarko immigraanteen kasua da. Gipuzkoatik edo Bizkaitik etorri zen immigrazioaz ari naiz eta nire gurasoak ere horiek dira. Aita Bergarakoa eta ama Errezilgoa. Marioren familia Eibarrera nola etorri zen entzuna nuen, baita nire familiaren kasua ere. Beraz, nik bizitakoa ere hor dago. Balio ote duen?

Euskaltegiko euskara apurtze aldera

“Ni idaztera, neurri handi batean, irakaslearen bidetik iritsi naiz. Neurri handi batean euskaltegiko hizkuntza apurtzeagatik hasi nintzen idazten. Apurtu diot, euskaltegiko hizkuntza espresiorik ez daukan hizkuntza baita nolabait”.

Kaleek izenak dituzte, portalek zenbakiak...

Horiek denak Marioren liburuetan ez dira azaltzen, nire bizitzaren ibilbidean daudelako azaltzen dira zehatz.

Eibartarra izateak lagunduko zizun, baina, bestalde, dokumentazio lan handia ere egingo zenuen. Edo ez?

Ez, batere ez. Hori da liburuak eduki dezakeen ekarria. Nik Mario Onaindiaren liburuak irakurri eta hark idatzi zuenaren gainean niri interesatzen zaidana gehitu dut. Esaterako, berak dio igandean joaten zela Ipuruara [Eibar taldearen futbol zelaia] futbola ikustera, eta nik kontatzen dut zehatz-mehatz hura non zegoen eta nola joaten zen, edota norekin zebilen...

Klandestinitatearen barruak xehekiago idazten saiatu zara, baita lortu ere.

Onaindia ezagutu zutenek idazle oso konpulsiboa zela diote, idazle bolkanikoa. Egutero hamabost orri idazten ei zuen. Niri idazteko modu hori ez zait interesatzen, gertatua interesatzen zait baina landuta idatziz, ñabardurak bila-

“1960-70eko hamarkadako gorabeherak bizi genituen batzuk garai hartan ainguratuta gaude, oraindik ez baitiogu erantzunik eman hainbat galderari”.



tuz... Onaindiaren liburuan aurkitu nituen pasarte batzuk zoragarriak dira, baina gaizki kontatuak. Gauza asko kontatu nahi zuenez, ez zuen idazkera lantzen, gertaerak idatzi baino eszenak “botatzen” zituen.

Liburuan azaltzen diren beste protagonisten kontrastatu al duzu zure lana?

Ez dut inorekin ezer kontrastatu.

Baina jasoko zenuen euren iritziren bat?

Ez. Eskubiri [J. M. Eskubi, *Maxi*] liburua bidali nion, baina ez dit erantzun. Larenari ere berdin [Xabier Larena, *Mudito*]. Ez dut erantzunik jaso. ETako izan zirenei buruz ideia hau egiten hasia naiz: ETAn ibili den jende askok, gehienek, ez dute beren esperientziaren lanketa teoriakoa egin. Nork bere esperientziaz publikoaren aurrean hitz egiteko eskarmentu handia izan behar du, eta dirudienez, ETako jendeak ez du bere esperientzia kontatzeko modua landu. Jendeak horien esperientzia ezagutzeko premia dauka ordea, testigantzen premia handia.

Gatazka bizirik egoteak galarazi die agian?

Ez dut uste. Burgosko prozesutik 40 urte pasa dira. Kontatzea idazleari soilik interesatzen zaion gauza dela iruditzen zait, ekintzaile bati ez zaio kontatzea interesatzen, ekintzaileak egin egiten du, ez kontatu. Bi mundu diferente direla dirudi, oso kasu gutxitan lotzen direnak. Oso erraza dirudi, baina benetan oso zaila da. Ekintzailea eta erreflexioa borrokan daude beren artean. ETako ekintzaile inportanteek ez dute kontatzeko behar den erregistroa landu, dirudienez.

**“Kontatzea idazleari soilik
interesatzen zaion gauza dela
iruditzen zait, ekintzaile bati
ez zaio kontatzea
interesatzen, ekintzaileak egin
egiten du, ez kontatu”**

Mario Onaindia edo *Carlos*, salbuespena da. Onaindiak bi alde horiek lotu zituen. Baina beste batzuek ere egin dute: *Bikila* [Joxe Iriarte] eta *Menxaka* [Jose Ramon Goikoe-txea, *Ardotxi* deitua ere]. Baina oso gutxi dira fenomenoak duen transzendentzia-erentzat. Liburuan Onaindia bezain protagonista da J.M. Eskubi. Igoal irakurri du, baina ez dauka gogorik horretaz hitz egiteko, ez nirekin, ez zurekin, ez beste inorekin. Nire ustez, jende horri ez dio bizitakoa kontatzeak gogoia edo interesa pizten.

Liburua jende askok irakurriko du, halere.

Ez dut uste. Jendeak ez du irakurriko azalean azaltzen den pertsonarengatik. Eta horrek min ematen dit. Nik badauzkat lagun minak, liburua irakurri ez dutenak eta irakurriko ez dutenak: “Nolatan eseri zara tipo horri buruz idaztera” esaten didate. Horrek bai afektatzen didala.

Agian, galdera askori erantzuteko gogorik eta ahalmenik ez dago herri honetan.

...eta gainera, galderak eta erantzunak ez dituzten horiek zu pertsona horrekin [Onaindiarekin] identifikatzen zaituzte. Hala egiten dute. Oso jarrera infantila da. Jarrera hori medio ezin genezake *Haur besotakoa* [Jon Miranderen nobela] irakurri, protagonista pederasta delako. Eta joan den mendeko maisulanik handienetakoa da. Ezingo genuke *Te doy mis ojos* filma ikusi ere [Iciar Bollain-en filma, tratu txarrei buruzkoa]. Haatik, nik ere egin niezazkioke tratu txarrak norbaiti. Esan nahi dut, Mario Onaindia horientzat putaseme bat da, baina ez badugu gehiago ezagutu nahi... Ez badugu esaten azken finean denok putasemeak garela. Ez bagara hortik hasten... ■

**gure
arteak
euskaraz**



Zinema

To Shoot an Elephant

Erasoen pean, kameraren atzean

Gazan zegoen Alberto Arce kazetaria 2008ko abenduan, Israeliek Berun Urtua operazio militarra abiatu zuenean. Bera izan zen han gertaturiko bonbardaketa, tiroketa eta erasoen nazioarteko lekuko bakarrenetarikoa, Israeliek sarrera debekatu egin baitzuen kanpoko kazetariei. *To Shoot an Elephant* dokumentala osatu du orain Arcek, erasoen pean zegoela kameraren atzean grabatutakoekin.

INIGO ASTIZ

URTEBETE DA Israeliek Gaza eraso zuela. Hamasek jaurtitako misilei erantzun behar ziela argudiatuta, 2008ko abenduaren 27an hasi, eta 2009ko urtarrilaren 18ra arte iraun zuten hiriaren aurkako erasoek. Hegazkinen, infanteriaren eta bonbardaketen ondorioz, 1.412 palestinar hil ziren Israelgo militarren eskuetan, eta hamahiru israeldar Hamasen misilen erasoen ondorioz. Bi aldeek jokaera salatzen du Nazio Batuen Erakundearen baitako Giza Eskubideen Batzordeak onarturiko Goldstone txostenak, baina bereziki gogor egiten du Israelen jokaeraren aurka. “Aurrez pentsatuta zeuden han gertatutako ekintza asko, eta neurritz kanpokoak izan ziren, arerio jotzea beharrean, ‘hura sostengatzen zuen azpiegiturak’ jotzea baitzuten helburu. Praktikan, itxura denez, biztanleria zibilaz ari ziren hori aipatzen zutenean”. Hori da txostenean ageri den ondorioetako bat.

Gutxi izan ziren, ordea, egoera hori bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten kanpotarrak, nazioarteko kazetariak debekatuta baitzuten Gazarako sarrera. Alberto Arce kazetari eta Free Gaza Gobernu Kanpoko Erakundeko kideak lortu egin zuen, halere, bertan egotea, eta erasoen lekuko izan zen. Nazioarteko lekuko bakarrenetarikoa, gainera. Bera izan zen han gertatzen zenari buruz bertatik mintzatu zen gaztelaniazko ahots bakarrenetarikoa. Gertatua ikusi, kontatu, eta grabatutakoarekin osatu du *To Shoot an Elephant* (Elefantez tiro) dokumentala, Mohammad Rujailah itzultzailearekin batera. Zinemaldiz zinemaldi dabil orain filma, eta Festival dei Popoli (Florentzia, Italia) jaialdian zuzendaririk onenaren saria ere jaso du.

TO SHOOT AN ELEPHANT



Alberto Arce goiko argazkian. 2008ko abenduan Gazan izan zen, bonba israeldarren pean. Han grabatutako irudiekin osatu du *To Shoot an Elephant* dokumentala.

Abuztuan ARGIAN egindako elkarrizketan (2195. znbk), filma bukatu gabe oraindik, hone-la mintzo zen Arce: “Hamasen kontrako eraso selektiboak direla diote, polizi etxeen kontrakoak. Baina hiru aste horietan ikusi nuenak besterik dio, eta egin dudan dokumentalak horixe erakusten du (...). NBEren eskolak bonbardatu zituzten, aise identifikatzeko moduko ikastetxeak: erakundearen ikurrindunak, koordinada jakinekoak (...); meskitak (...); bonbardatu eta su eman zioten fosforo zuriz bertako ospitale handienari (...); su eman zioten, fosforo zuriz, NBEren elikagai biltegiari; Khabaliako errefuxiatu eremuko Alauda ospitalea, espainiar eta euskal kolaborazioak zuzenean ordaindu duena, bete-betean bonbardatu zuten, (...); Ilargi Erdi Gorriaren lau anbulantzia zartatu zituzten, zaurituak garraiatzen zituzten bitartean; frankotiratzailerik tiroka eraso zioten etxetik irten eta ihesi hasi zen jendea; auzoetako ur-hoditeria sunsitu

tu zuten bulldozerren bidez, argindar-zutoinak bota... Gazako itsas-portua txikitu zuten, zenbait hotel...”.

Hori da filmean ikusten dena. Heriotza lanean. Errukirik gabe. Zikin. Sekuentzia luzeetan. Arceren ikuspuntutik. “Errealitate puskak bildu nahi nituen”, dio, “ikuslea han egotea nahi nuen. Ikuslea gertatu zenaren barnean sartzea”. Ez da film erraza. Ez ikusteko, ezta egiteko ere. Teknikoki, adibidez, zaila izan zitzaion Arceri kameraren bateriak kargatzea ere, hiriko gune asko elektrizitaterik gabe egon baitziren erasoek iraun bitartean.

Arriskua ere bazegoen. Tiroak eta bonba hotsak entzuten dira etengabe Arcek gidatutako kameraren ezker, eskuin, aurre eta atzealdean. Hormen atzean izkutatzen ageri da behin baino gehiagotan. Korrika ihesi beste batzuetan. “Filma grabatzen joan ahala, hil egin ziren kamera aurrean agertzen direnetako batzuk”, dio Arcek.

Kameraren objektiboa garbitzen ageri da lehen irudietan Arce. Sekuentzia horretan baino ez da agertzen film osoan, eta ahotsa ere gutxi batzuetan baino ez zaio entzuten. Bere ikuspuntutik dago grabatuta, ordea, film guztia. Berak ikusitakoa ikusten du ikusleak, berak entzundakoa entzun. Hainbat ataletan dago banatuta dokumentala. Odolez zikindutako umeentzako

txirristak ageri dira batean. Israeldarren eraso bat dela eta, hiru seme-alaba galdu dituen Hamda sendiaren ospitaleko bizipenak bestean. Medikuen aurkako tiroketak. Goiz edo berandu hil egingo direla jakin arren, lanean jarraitzen duten anbulantzia gidariak. Ateak itxita dituzten nazioarteko laguntza banatzeko guneak. Fosforo zuriak erretako etxe bat...

Latza izan zen eraso haietan bizitako egoera, eta latzak dira irudiak ere. Latzegiak?. “Zer nahi duzu, heriotza apaintzea?”, galdetzen dio dokumentalean Rujailah zuzendari-kideak telefonoaren beste aldean den kazetari bati, Internetez bidalitako argazkiak gogorregiak direla esaten diotenean. Arcek dioenez, dokumentalean zer sartu eta zer ez sartu erabakitzen ere nahikoa lan izan dute, grabatutakoan artean oso eszena gogorrak zeudelako. “Nola agertu heriotza publiko orokorrari?”. Hori zen Arcek editatzerakoan bere buruari egiten zion galdera. “Han bertan egotean neurria galdu egiten da”. Hala mintzo da etxea txikitu berri dioten emakume palestinar bat kameraren aurrean: “Jaten dugunean, edaten dugunean, lo egiten dugunean, heriotzaren esperoan gaude. Edozein unetan akaba gaitzakete (...). Hori da espero dezakegun bakarra; hil eta bakean gelditzea”.

Latza da irribarreen atzean dagoen errealitatea ere. Hori da “zergatik” izeneko atalean ikus daitekeena, behintzat. “Zergatik grabatzen gaituzu, jauna?”, galdetzen diote irribarrez behin eta berriz kameraren atzean dagoen Arceri kalean gora eta behera dabilzan ume palestinar batzuek. “Zergatik, jauna?”. Eguneroko bizitzak ere egiten du bere bidea, noizbehinka, heriotza horren guztiaren artean, eta bazkaltzen ageri dira batzuetan anbulantzia gidariak, elkarri piper min bat dela eta adarra jotzen...

Nazioartearen erantzunik ez

George Orwellen testu bat du oinarrian filmaren izenburuak, *Shooting an elephant*. Birmanian dago kokatuta istorioa. Polizia kolonial baten istorioa da kontakizunaren abiapuntua. Herri batean elefante batek kontrola galdu, eta herritar bat hil du. Azkenean, tiro egiten dio elefanteari poliziak. Hala egin behar zukeenik gehiegi sinetsi gabe, egiten dio tiro. Riflea hartzen ikusi dutenen, eta, beraz, tiro egingo duela espero dutenen aurrean barregarri ez gelditzearren. “Gero, noski, eztabaida amaigabe bat egon zen elefanteari botatako tiroari buruz. Jabea haserre zegoen, baina indiar bat baino ez zen eta ezin zuen ezer egin. Gainera, legalki, egin behar zena egin nuen, ele-

Urtarrilaren 18an munduko bazter guztietan proiektatu nahi dute filma, nazioarteko isiltasuna apurtzeko

fante zoro bat hil egin behar baita bere jabeak haren kontrola galduz gero, zakur zoratuekin gertatzen den bezala”.

Tiro eginda ere dirudiena baino zailagoa da elefante bat akabatzea. Hori da, dioenez, Arcek dokumentalarekin helarazi nahi duen mezua. Merke ateratzen dela ere esan nahi zezakeen, ordea. Ez legoke oso oker, Goldstone txostenean esaten dena esaten bada ere, nazioartean erantzunik egon ez dela ikusirik. Hala mintzo zen Arce Berria egunkariari eskainitako elkarrizketa batean, erakundearen isiltasunari buruz: “Nazioartean inork ere ez du ezer egiten Israelen jokamoldea geldiarazteko. Hortaz, nire ikuspuntutik atera dezakedan ondorioa denik eta zinikoa da: Gazan gerra krimenak filmatzen egon izanak, praktikan, zine jaialdiak bisitatze-ko baino ez dit balio izan”.

Mundu mailako emanaldia

Gazan gertatu eta Arcek eta haren kamerak ikusi ahal izan zutena munduak ikustea da orain helburua. Mundu mailako emanaldia egingo dute, horregatik, hilaren 18an. Iruñeko Eguzki Bideoak kolektiboarekin plazaratu du Arcek dokumentala. Haiek dira ko-produktoreak, eta haiek dira mundu-emanaldi hori koordinatzen dabilzanetako batzuk ere. Hamalau hizkuntzatara itzuli dute dagoeneko, eta emanaldia ahalik eta handiena izatea da

asmoa. “Garaipen bat izango da nazioarteko isiltasunaren aurrean, baita ideiak hedatu eta sareak erakitzeko bizkarrezurra ere”.

Creative Commons lizentziapean dago bideoa eskuragai eta, beraz, librea da hura kopiatu, banatu eta ikustea, egilearen izena agertuz gero, eta irabazi asmorik gabe eginez gero. DVD formatuan ere eskura lezake nahi duenak 12 euroren truke, eta, sei euroren truke emanaldi erraldoiaren parte hartu nahi duten erakunde, elkarte eta bestelakoek. Bi

helbide daude horretarako: www.toshoot-anelephant.com gunea, edo toshootanelephant@eguzkibideoak.info e-posta. Webetik bertatik ere eskuratu daiteke dokumentala, eta aipaturiko bi aukera horiek dira emanaldian parte hartu nahi dutenentzako informazio gehiago lortzeko bidea.

18an gertatzen direnak kontatzeko, eta izandako eztabaiden nondik norakoaren berri jakiteko gune berezia izango du 18tik aurrera webguneak. Ikus-entzunezko edukien erabilerari librea sustatuz, iazko bonbardaketak gogoraztea da helburua. ■

TO SHOOT AN ELEPHANT



Filmetik hartutako irudi bat goian. Zibilen kontra egiteaz gain, Israelek anbulantzien eta medikuen kontra ere jo zuen eraso militarrean.

Liburuak

KRITIKA

Basoak badu sekretu bat.

Testua: Jabier Sobrino. Irudiak: Elena Odriozola.

Itzulpena: Arkaitz Goikoetxea.

Txalaparta-OQO. 34 orrialde. 13 euro.



Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

Sekretuaren ederra

EUSKARAZ argitaratzen den album produkzio ia guztia itzulpenen bidez iristen zaigu. Duela urte batzuk Kalandrak etxeak bere aldetik ekin zion euskaraz ere argitaratzeari eta ondoren Pamiela etxearekin batera ari dira beren album ezagunenak (eta baita euskaraz sorturiko Etxepare saridunak) plazaratzen. 2009 urtean, berriz, antzeko beste akordio baten berri izan dugu, Txalapartak eta OQOk egin dutena, eta hain zuzen akordio horren ondorioz argitaraturiko liburuen artean dugu hau.

Basoak badu sekretu bat-en hasiera-hasieratik nabari ditzakegu liburu honen nondik norakoak. Gaia misteriotsua da, sekretu baten inguruan eraikitako kontakizuna; ilustrazioak, berriz, Elena Odriozolaren estilo arin eta iradokitzailean, animalien arteko harremanaren berri ematen digu. Istorio honetako protagonista nagusiak bi baitira, Urtxintxa eta bera ("hantxe ikusi zuen bera, urki batetik behera zetorrela. Ausarta zirudien, eta misteriotsua"). Eta, hain zuzen, Urtxintxak basoko animaliekin dituen elkarriketen bidez lortuko ditugu hainbat datu berari buruz, harik eta amaieran, gure jakin-nahia ase arte.

Albumak irudi eta testu irakurketak eskatzen ditu, eta alde horretatik oso aberatsa da bai Elena Odriozolaren ekarpena, bai Javier Sobrinoren idazkera poetikoa; azken horren adibide argia dugu ipuinaren hasiera bera: "Iparraldeko basoetan itsaso usaina dago, zuhaitzak altxorren gordeleku dira, lainoek misterioak ezkutatzen dituzte, haizeek mezuak daramatzate eta animaliak sekretu liluragarrien jabe dira". Ideiak azaltzen dira, baina baita iradokitzen, aipatzen... eta antzeko zerbait gertatzen da Elena Odriozolaren irudietan, koloreen nahasketarekin, figuren neurriekin, espazioen banaketarekin... jolasten baitu ilustratzaile donostiarrak.

Basoan sekretu bat dagoen eta sekretu hori, irakurleak berehala ikusi ahal izango duen bezala, Urtxintxaren harremana da. Hasierako enkontru baten ostean Urtxintxak ezin baitu burutik kendu bera ("Ordutik aurrera, bera etortzen zitzaion gogora Urtxintxari noiz-nahi"), eta burutik ezin kendu horren ondorioz ikusi ahal izango dugu Urtxintxa animalia ezberdinekin hizketan, aholku eske, bere egoera azaltzen... amaieran misterioa argitzen zaigun arte.

Liburu hau, alde horretatik, oso ederra da, transmititzen dituen balioengatik (eta honetaz irakurleak egin dezala gogoeta, misterioa argitzean) eta duen balio poetiko estetikoagatik. Poztu behar gara, horregatik, euskaraz eskaintzeko aukera dugulako, baina oraindik ere ezin gara guztiz poztu liburu hauetan ere "dependen-teak" garelako. ■

Txalapartari buruz jakin beharreko guztia

Lan titanikoa plazaratu du Juan Mari Beltranek: *Txalaparta*. Urte askoko dokumentazioaren ondorio, irudiz, testuz, partituraz eta grabatuz osatutako lan mardul honetan aurkituko du irakurleak euskal musika tresna horri buruz jakin behar den guztia. Orain gutxi arte askorentzat ezezaguna izan den arren, egun oso zabaldua dago txalaparta euskal kulturari; tresna tradizionala izatetik, abangoardiako lanen



Txalaparta.
Juan Mari Beltran.
Nerea.
217 orrialde.
44 euro.

protagonista izatera. Aldaketa prozesu horren nondik norakoak azaldu ditu Beltranek libururako beren beregi prestatutako CD bat dakar liburuak, baita DVD bat ere, non biltzen diren txalapartak historian izan dituen jotzaile garrantzitsuenen testigantzak. ■

Ahozkotasunaz Egan aldizkari literarioan

2009ko azken *Egan* aldizkarian hainbat eduki bildu dituzte: Joseba Gabilondok *Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: abozkotasunaz eta performantzeaz* izeneko artikulua izkiriatu du; Amaia Serrano Mariezkurrenak berriz, *Peru eta Maria, zenbat historia!* artikuluan, bi izen horiek euskal ipuinetan duten presentzia azpimarratu du, eta Bizkaia aldeko mundu ikuskera bat ezkutatzeko dutela erakusten ahalgindu du; Juan Luis Zabalak Luis Iriondo elkarriketatu du; Ibai Atutxak Jon Mirande irakurtzeko modu diferente bat proposatu du. Kepa Altonagak, Mikel Hz. Abaituak eta


Iñaki Zubeldiak ere idatzi dute, besteak beste, zenbaki honetan. ■



Egan.
Batzuen artean.
Euskalerriaren Adiskideen Elkarte.
287 orrialde. 18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Sunrise orchestra.
The Dirty Pink Ladies.
Bloody Hotsak.
Iraupena: 38'58".
10 euro.

Psikodeliak garagearen dotoreena atera zueneko

EZ NEUKAN IRUNDAR HAUEN berri eta ezustea izan da. Hala ere, aitortu behar dut Irun eta Soraluze arteko aliantzak kaleratu izanak nire jakin-mina piztu zuela, ez da eta ohikoa marka horrekin bertako taldeen alde apustua egitea. Rakelen teklaturen laguntzarekin laukote bihurtu, eta giro eta sakontasunean irabazi du talde honek; heldutasun puntu ezohiko bat dauka, eta kanteekin atzera egitea ezinbestekoa da. Lanari izena ematen dion hit!-ak zabaltzen du dis-

koa, dotoretasunez psikodelia, 70eko hamarkadako hard-rocka eta garagea ederto ezkonduz. Aurkezpen horren ostean, gai dira ingelesez MC5ren kutsu ye-ye-ena, The Soundtrack Of Our Lives-en handitasuna edota Hodo Gurus gogorra ekartzeko maisutasunez; eta salbuespen gisa, gaztelaniaz abesten dutenean, hirietako inguru curriquietara jotzen dute.

www.myspace.com/thedirtypinkladies

The Dirty Pink Ladies

«Taldea guretzat hobya baino askoz gehiago da, gure sorkuntza askatzeko bidea da»

Ez da ohikoa Bloody Hotsakek Euskal Herriko taldeen lanak kaleratzea...

Oso pozik gaude guran jarri duten konfiantzarekin. Bloody Mary disko dendako Juancar aspalditik ezagutzen dugu, bezeroak garelako. Gure EPA entzun eta Sewergrooves taldearekin jotzera gonbidatu gintuen, eta diskoa horren ostean etorri zen. Are gehiago, gure musika diskoetxeko taldeen bat datorrela uste dugu.

Disko hau egiteko denbora luzea eman duzue... Horrek on egin die kantuei?

Gure lan egiteko modua da, presioak ez digu laguntzen; eta zeregin asko bateratu behar izan ditugu. Dena den, urte bakarrean ez genuke halako diskoa egingo. Hitzak musikarekiko bigarren maila batean daude? Zertaz abesten duzue?

Bai, musikari eta melodiei garrantzi

handiagoa ematen diegu. Hitzetan bakardadeaz, aurrera egiteaz, maitasun minez eta fikziozko pertsonaieztaz abesten dugu.

Too old to cry. Bizitzari azken tanta ere atera nahi diozue? Zer ematen dizue taldeak?

Kanta horretan esaten dugu inoiz ez dela berandu akatsak zuzentzeko. Taldea guretzat hobby bat baino askoz gehiago da; gure sorkuntza askatzeko bidea da.


Gaur egungo Euskal Herriko underground soinu ekoizle onenetakoak diren Maikel eta Karlos Txapekin grabatu duzue. Zeren bila jo zenuten?

Lehenengo EPA Maikelen egin genuen eta oso gustura gelditu ginen; horregatik, errepikatzea erabaki genuen musika oinarria grabatzeko. Horren ostean, erabaki genuen Karlosek ahotsak grabatu eta masterizazioa egitea bestelako emaitza lortzeko.

Abestiek garapen handia dute. Abesti bat bukatutzat emateko buelta asko ematen dituzue?

Bai (barrez). Bi urte pasa ditugu bueltak ematen. Eta zuzenekoetarako aldatu egiten ditugu. Rakel laugarren taldekidea batzearekin taldeak asko irabazi du...

Bai, zalantza gabeko. Giro askoz sokinagoa lortzen dugu eta teklatuaren soinuak berotasun berezia ematen du. ■



Ezpalak

JON TORNER

Euskarazko Wikipedia: 50.000 sarrera baino gehiago

EUSKARAZKO WIKIPEDIAK (<http://eu.wikipedia.org>) 50.250 sarrera inguru ditu dagoeneko. Badira sei urte euskarazko bertsioa sortu zela eta nabarmen egin du gora sarrera kopuruak: uztailetik hona 10.000 gehiago sortu dira Interneten euskaraz dagoen entziklopediarik handienean. Estatistikak kontsultatzeko: <http://eu.wikipedia.org/wiki/Berezi:Estatistikak>.

Euskal artistak Txinan

IAZ BEZALA, euskal artistak Txinan promozionatzeko *Goazen Txinara!* ekimena errepikatuko du aurten Judas Arrieta artista gipuzkoarrak Pekinen duen Ma Estudioak (www.mastudiobj.com). Txinatarrez osatutako epaimahaiak lau euskal artista aukeratu ditu eta irabazleek aipatu estudioan egin ahal izango dute lan bi hilabetez. Beka bi epetarako izango da (maiatzaren 1etik ekainaren 30era eta uztailaren 1etik abuztuaren 31ra) eta parte hartzeko hilaren 30a baino lehen eman behar da izena.

Pilotari eskainitako gunea, Gasteizen

HERRI UGARIREKIN lehiatu ostean, Gasteizek hartuko du Euskal Pilotaren Zentro Integrala. Alde Zaharrean kokatuko da eta aurten irekitzea da asmoa. Donibane Lohizuneko Pumpa enpresak –zehazki Ander Ugarte pilotaren historialariak– bultzaturiko proiektuak pilotaren artisautzan, zabalkuntzan eta promozioan lan egiten duten erakundeak biltzea du helburu.

● **Josu Rekalde EHUko Arte Ederren Fakultateko dekanok *El País*en:** «Duela 20 urte, Arte Ederretako ikasleek artearen gune profesionaletara atera nahi zuten. Kontua da galeriek ezin zituztela hainbeste artista hartu, eta frustrazio handia sortzen zen. Diru-laguntzetatik zintzilik geratu ziren asko, eta hori ere ez da ona. Gaur egun beste toki batean gaude: artistek badakite artearen ekonomiak ezin dituela hainbeste artista eutsi eta erreminta berriak garatzen dituzte. (...) Artistak indibidualistak izan dira, egolatrak, baina uneotan beharrezkoa dute elkartzeko, taldeak osatzea».

● **Txomin Uribe Piztiak taldeko kideak *Bizkaie!* atarian:** «Diskorik ez da saltzen, jenteak musikeagazko interesa

Ivan Zulueta (1943-2009) zinema zuzendari donostiarra hil zen pasa den abenduaren 30ean. 66 urte zituen Zuluetak eta osasun egoera txarrean zegoen azken urteetan. *Arrebato* kultuzko filma da Zuluetairen lan esanguratsuena. Argazkian, 2008ko Malagako (Espainia) Zinema Jaialdian.



Anton Abadia (Dublin, 1810 - Paris, 1897) idazle, zientzialari eta euskaltzalea jaio zela 200 urte bete ziren hilaren 3an. Data hori gogoan, Abadia ardatz duten hainbat egitasmo antolatuko dituzte aurten: Hendaiako (Lapurdi) Abadia gazteluan egingo den ekitaldi ofiziala, Parisko zientzia akademiako kideen parte hartzearekin (ekainean); liburu baten argitaratzea; Euskal Kultur Erakundeak sortutako antzezlanak...

Gartxot koplariaren kondaira film labur bilakatu dute, lehen aldiz, Asisko Urmeneak eta Juanjo Elordik. Itzaltzun (Nafarroa) estreinatu zuten hilaren hasieran *Gartxot* lana, pertsonaiaren eta bere seme Mikeloten istorioa kontatzen duena. Elordiren hitzetan, marrazki bizidunak izan arren ez da umeentzako filma, “nahiko gogorra eta errealista” baita. 2003an *Gartxot* komikia plazaratu zuen ARGIAK.



galdu dau, kontzertuetara oso jente gitxi joaten da... Pena da eta bildurra emoten deust ze diskorik saltzen ez bada, zuzenekoetara jentea joaten ez bada, diskoak grabetan ez badira eta argitaratzen diran apurrei etekinik ataraten ez bajake, musikagintzan etena suberta daiteke».

● **Javier Valverde margolariak *Garan*:** «Euskal Herrian beti egon dira margolari on eta ugariak, eta uste dut atzetik datozen gazteek ere oso gauza ederrak egiten dituztela. Orain, ordea, gauza asko aldatu da. Ordenagailu bidez gauza asko egiten dira, eta ni ez nago horren kontra, ezta gutxiago ere, baina nik neure burua ikusten dut pintzela hartuta, harekin lanean eta beste toki batean banengo bezala sentitzen naiz».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Buster Keaton finlandiar galbahetik

Buster Keaton: vida y obra (Buster Keaton: bizitza eta lanak). Kari Hotakainen. Meettok, 2009.

ZEIN ITSUSIA nork bere burua aipatzea, baina zein beharrezkoa batzuetan, konparazioak egin ahal izateko: joan den astean txoko honetara Claudio Magrisen nobela bat ekarri genuen, puskatan aurkeztua eta, irakurle honen ustetan, aurreneko irakurketaren ondoren zati-zati eginda bukatzen zuena. Hori gertatzearen erruetako bat zen, irakurle honen ustetan, nobelaren hasierako asmo handia, XX. mendearen kontakizuna egin nahia. Horrek bihurtzen zuen gehiegizko, alor askotan. Gaur ekarri duguna, askoz pretentsio txikiagoko obra da, testu fragmentarioa hau ere, baina, betiere irakurle honen ustetan, hobeto funtzionatzeko duena: Kari Hotakainen finlandiarraren *Buster Keaton: Elämä ja teot* nobelaz ari gara (*Buster Keaton: bizitza eta lanak*, iaz Donostiako Meettok argitaletxeak gaztelaniaz argitaratua).

Eta nobela esan diogu, zer edo zer esateagatik, liburuak ez baitu inolako tramarik garatzen: Keatonen gurasok hitz egiten dute semeari buruz, baita Charles Cha-

plinek, Clint Eastwoodek... eta Mike Tysonek ere ("Zortzi asaltotan itsu-makilka ibili ondoren leher eginda dago, eta soken laguntzaz, arrankatu eta azpitik aparkatzen du bere ukabil hezurtsua zure kokotsean"). Biografia haluzinatua baten aurrean gaude, barre murritzerako gonbidapen sorta baten aurrean; proiektu arraro baten aurrean: mutuari hitzak jartzea; aktore amerikarra galbahe finlandiarretik pasata kontatzea. Konparazioa handiegia ez bada, Woody Allenen edo Groucho Marxen umoretik gertu dabil nobela pasarte askotan, sententzia absurduek, kontraesan distiratsuek, ironia fin eta gardenak.

Jatorriz 1991n argitaratua, hau izan zen Hotakainen aurreneko nobela. Lau poema liburu zituen argitaratuak, eta horren arrastoak antzematen dira idazkeran: *nola* kontatu eta *zer* kontatzen artean, aurrenekoaren alde egin zuen idazleak. Asmatu zuen arrunkeriatik ihes egiten, eta irakurle honek, astebete beranduago, fedea berreskuratu zuen nobela fragmentarioetan. ■



donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

NEGUA 2010



Urtarrilak
23

Krystian Zimerman

Classic: Musika • Victoria Eugenia • 20:00

Urtarrilak
23

Ttakun Ttan Ttakun, Juan Mari Beltrán

Musika • Imanol Larzabal (Lugaritz). 21:00

Otsailak
4-7

Ilunpetan, Kanpingags

Antzerkia • Antzoki Zaharra • 20:00

Otsailak
6

El holandés errante, R. Wagner

Classic: Musika • Victoria Eugenia • 20:00

Otsailak
19

Pablo Milanés

Musika • Victoria Eugenia • 20:00

Otsailak
20

Quique González

Musika • Victoria Eugenia • 20:00

Otsailak
21

Rodrigo Leão & Cinema Ensemble

Musika • Victoria Eugenia • 19:00

Otsailak
27

Polvo eres, Juan Carlos Santamaría

Dantza • Victoria Eugenia • 20:00

Martxoak
6-7

La lengua de las mariposas, Katu Beltz

Antzerkia • Gazteszena (Egia) • 20:00

Martxoak
26

Leidor Sessions, Bide Ertzean

Musika • Imanol Larzabal (Lugaritz) • 21:00

Apirilak
16-17

Dos menos, Hector Alterio & José Sacristán

Antzerkia • Victoria Eugenia • 20:00

Apirilak
23



A Shake in Calm Water, Audience

Musika • Imanol Larzabal (Lugaritz) • 21:00



argia
argia.com/multimedia

Bertsio digitaletik harago Argi berri bat sarean



BIDEOAK:

Elkarrizketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.

DIAPORAMAK:

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.

EKITALDIK:

Euskal Herriko txoko ezberdinetan emandako hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean euskaraz.

ARGAZKI-GALERIAK:

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenarako.

FILM-LABURRAK:

Euskarazko film-laburren hautaketa.

ANA ZAMBRANO

GIPUZKOAKO UDALERRIA PERTSONAIA-REN ABIZENA	GARRASIA ERREPI-KATUZ, IRAKITEN		DOLU	 WORDPRESS.COM	UMIL, XUME OPARI	OPARO BIDEAK ESTALTZEKO EKAI	RIAD-EKO HERRITAR KANTARI	
BIZKAIKO UDALERRIA NORANTZ					AITALEHENA LUZE, GOI			
			DIMAKO AUZOA, (BIZKAIA) BELDURRA	PERTSONAIA-REN IZENA EREITEN DUENA				
SUFRE ALTxATU	TRISTE LAGUNTZA, SOROSPEN				AITATU ADITZAREN ERROA MEA MOTA			
			AFIXA EZ HANDI EZ TXIKI				LARRE ARE GABE BORDA, TXABOLA	
HODI JANGARRI	NAHASTURA TRINKOA GURA, DESIRA			EUSPENA OILOAREN AR HELDU				HOTS ZORROTZA, DEIDARRA
					BARRABIL SOLIDO BAT LIKIDO BIHURTU			
ITALIAKO IBAI NAGUSIA PETXA		GARAIERA, GORPUZKERA ETXEKO ERREGAI				HAMABI SABELEKO ORBAIN		
			LOHITASUN SEIGARREN MUSIKA NOTA				HIDROGENOA DEZIMETRO	
ZIGORTZEKO MAKILA GOGOETA EGIN				MOTELDU, NAGITU TONA				
						SU, GAR		

	T	H				A	R
N	O	B	E	L		O	P
	L	O	I	U		A	S
N	O	R	A	T	O	A	L
S	G	O	I	B	E	A	I
J	A	S	O	K	A	R	T
			O	R	E	A	E
M	A	K	A	R	O	I	P
P	O		T	A	I	L	U
Z	E	R	G	A	L	E	R
	T	R	A	I	L	A	T
H	A	U	S	N	A	R	T
						L	A
						A	U
						O	P
						A	S
						A	B
						F	R
						E	D
						A	I
						S	T
						E	A
						P	O
						X	I
						T	O
						I	D
						L	A
						M	A

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Otsoaren ehiza Suedian, 40 urte eta gero



WWW.KIDCOUTEAU.COM

JOAN DEN mendeko 60ko hamarkadaz geroztik Suedian ez da baimenik eman otsoa ehizatzeke. Baina aurten, otsailaren 15 era bitartean, 27 otso ehizatzeke baimena eman du hango gobernuak, aldeko eta aurkako iritzia asko sorraraziz. Kontuak kontu, milaka boluntariok eman dute izena 27 otsoak ehizatzeke eta urtarrilaren 2rako 21 ehizatu direla jakin izan da, beraz ez dirudi luze iraungo duenik otsoa ehizatzeke irekialdiak.


Gobernuaren arabera, Suedian 182 eta 217 artekoa da otso kopurua, eta ondoan dagoen Norvegian, berriz, 213 eta 252 artekoa, baina hainbat talde kontserbatzailek diote bi herrialde horietan, guztira, 150 ale besterik ez dagoela. Otso gehienek odolkidetasun arazoak dituzte, bikote beretik baitatoz.

Eztabaida berria da Suedian, baina zaharra Europan. Frantzia eta Euskal Herrian artzainek otsoak aziendetan sortzen dituzten sarraskiak aipatzen dituzten bezala, talde ekologistek otsoek oreka ekologikoan duten zeregina azpimarratzen dute. Suediakoa erdibidea ote?

Eguzki-sistemaren adina berriz kalkulatu beharko da

UNIBERTSOKO OBJEKTUEN ADINA kalkulatu ahal izateko zientzialariek datazio erradiometrikoa erabiltzen dute. Zientzialariek objektuan dagoen isotopo baten hasierako kantitatea eta haren desintegrazio-abiadura ezagutzen dituzte, eta horien arabera objektuaren adina kalkulatu dezakete.

Eguzki-sistemaren adina kalkulatzeko, meteoritoetan dauden berun-206 eta berun-207 isotopoen arteko proportzioa neurtu izan dute, baina *Science* aldizkarian berriki argitaratutako artikuluan batean adierazi da orain arte egindako neurketetan hutsune bat izan daitekeela. Berun-206 eta berun-207 isotopoak uranio-238 eta uranio-235ren alabak dira, hurrenez hurren, eta orain arte segurutzat jo da uranioaren bi isotopo horien arteko proportzioa beti berdina zela meteoritoetan. Baina ez da horrela, berriki egindako zenbait neurketak erakutsi dutenez. Hala, baliteke eguzki-sistema uste zena baino zertxobait gazteagoa izatea.



TRUCOSPC.INFO

H1N1 birusa ez da hainbesterako izan

Iaz Mexikotik etorri zitzaigun txerri gripearen lehen arrasto, eta orduz geroztik alarma piztu eta farmaziaren enpresa batzuek negozio itzela egin dute txertoen kontura. Hona hemen Frantziako datu batzuk.

<http://ttiki.com/9094> (Frantsesez)

Zigarroek, nikotinaz gain, bakterio arriskutsuak ere badituzte

Frantziako eta AEBetako zientzialari talde batek egin dako ikerketa-lan batean, gaixotasun larriak eragin ditzaketen bakterioak topatu dituzte zigarroetan.

<http://ttiki.com/9097> (Gaztelaniaz)

2008an, %2 handitu da atmosferara igorritako CO₂ kopurua

2008an krisian geunden mundu osoan, eta halaz ere, gizakiaren jardueragatik atmosferara igorritako karbono dioxido kopurua ez da urritu, hazi baizik. Hainbat zientzialarik egindako estimazioaren arabera, %2koa izan da hazkunde.

<http://ttiki.com/9098> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

Bahe-kirten

Angula sasoia puri-purian dago. Aurtengoan urtarrilaren 31ra arte. Lehorreko angulato-kiak bezala txalupak ere prest daude. Alunean lotuta dago txalupa hau, basa harrotzeraino erriorearen erraiak orraztuko dituen bahe pareta heltzeko tramankulua du brankan. Gai- nean anguletarako tresnak txukun-txukun. Tartean bahe pareta eta badaezpadako hiruga- rren bat eta bahe-kirtena. Gaur egun meta- lezkoak dira erriore bazterrean ikusten diren kirten gehienak. Argazkikook egurrezkoak dira, haltza (*Alnus glutinosa*), maiatzeko ilber- rian botatako haltza. Ilberrian, bahe-kirtena malgua izatea komeni baita, ur-karga handia denean edo kateatuz gero hautsi gabe ahal den gehien okertzerainoko malgua.

Erlikiaz erlikia

GOJIA, *Lycium barbarum*, da bai azken puntako antioxi- datzailea. Himalaiako hotzetatik ekarritako gojiaren pasak zahartzaroa atzentzen omen... Fruitu gorri gehie- nen gisara osasuntsua da oso, bitaminatik ugari du, eta beste osagai ongarri eta hobarien artean fruituetan aur- kitzen zailak diren azido koipetsuak ditu. Dena dela, ikerketa askoren jomuga da gojia, minbiziei aurre egin eta makaldu ditzakeelakoaren ustetan, batik bat.

Lycium genero berekoa da hesilaharra, *Lycium euro- paum*. Mediterraneo aldean zabaldutako espezieari eman izan zaio izen hau, baina *Lycium barbarum* (gojia), *Lycium chinensis* eta hirurak hiru tokitan bizi den espezie bakartzat jotzen ditu botani- kari ugari.

Katoliko faxiste- nen eta antigoaleko- en Erromako egoi- tzan jasotzen den Kristorena omen zen koroa erlikiaren aran- tza hesilaharra dela diote, eta *spina benedic- ta* ere deitu izan da landare hau. Biblian maiz aipatu dela diote. Sekta honek egun oraindik susta- tzen dituen genozi- dioen bedekaziora- ko aitzakia...

Xelebrea badiru- di ere, hesilaharrak gazteleraz dituen izen ugarien artean, bada euskaldunoi deigarria gertatzen zaigun bat: artoa. Hesilaharra ez da artoa, guretartu genuen amerikar artoa, *Zea mays*. Baina inoiz artoa izan ote da? Artoa, grekozko *artos*, legamiarik edo orantzarik gabeko ogia da. Gure artoa landarea bera da, baina baita artoz egindako zapero antzeko ogi trinkoa ere. Artoak artatxikia (*Panicum miliaceum*) baztertu zuen. Artatxikiak inoiz baztertu ote zuen hesilaharra? Modako goji hima- laiarra noizbait izan ote da gure ogi?



RETAMA

Hesilaharra, *Lycium europaeum*.

Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Orratzetatik zintzilik

LONDRES, 1859KO IRAILAREN 7A. Westminsterreko dorreko erlojua martxan jarri zuten. Orduan munduko erlojurik handiena eta zehatzena zen eta oraindik planetako ezagunenetakoa da. Big Ben esan ohi zaio, baina izen hori okerra da, Big Ben, berez, hamahiru tonako kanpaiaren izena baita. Askok uste dute erloju horrek erabakitzen duela zer ordutan bizi garen, baina hori ere ez da zuzena: Parisko Pisu eta Neurri Bulegoak du 50 herrialdetan ordu ofiziala zehazteko ardura.

Londresen bertan, Zientzia Museoko kontserbatzaileek erloju moderno baten irudirik zaharrena topatu zuten, joan den urrian, non eta 1560ko margolan batean. Baina eguneko zer unetan gauden jakiteko grinak 450 urte baino gehiago ditu.

Denbora neurtzeko modurik errazena eguzkiari erreparatzea izan zen Historiaurrean eta Antzinaroan. Baina, zer egin gauez, eguzkirik ez denean? Egiptoarrek klepsidra izeneko urezko erlojuaren bidez gaintitu zuten oztopoa. Klepsidra zeramikazko ontzia zen, oinarrian zulo bat zuena; zulotik likidoa abiadura

jakinean irteten zen, aurrez ezarritako denbora tartean. Erromatarrek kandelak erabiltzea nahiago izan zuten: kontsumitutako kandela puska bakoitza gauaren zati bati zegokion. Harea erlojuen jatorria, berriz, ez da ezaguna.

Batzuek diote erromatarrek asmatu zutela, baina Erdi Arora arte ez zen nagusitu. Dena den, Erdi Aroan tramankulu mekaniko konplexuagoak asmatu zituzten ordua zehazteko. Eta Gali-leoren ekarpenei esker lehenengo pendulu erlojua asmatu ahal izan zen.

Ordulariak industrializazioarekin batera mekanizatu eta unibertsalizatu ziren. Lan erritmo berrian, ez zen aitzakiarik lanera berandu iristeko. Baina eskumutu-

rrean lotutako erlojuak ez ziren XX. mendera arte iritsi. Alberto Santos Dumont hegazkin pilotu brasildarrak egin zuen lehena, eta Cartier etxeak merkaturatu.

Egun, erlojuak nonahi dauzkagu eta denbora neurtzeko obsesioa absurduraino eraman dugu zenbait kasutan: Long Now izeneko fundazioa datozen 10.000 urtetan zehaztasun osoz funtzionatuko duen erlojua diseinatzen ari da.



WWW.CINEMAISDOPE.COM

150 urte bete berri dituen Big Ben munduko ordularirik ospetsuena da, baina Harold Lloyd filmeko *Safety Last* filmeko hau da zinemako ezagunena.

Arrastoak

Nor da protagonista? Camus ala Sarkozy?

ALBERT CAMUS (1913-1960) idazle eta filosofoaren arrastoak frantziar ospetsuen Panteoira eramatea proposatu du Nicolas Sarkozy presidenteak, Nobel saridunaren heriotzaren 50. urteurrena bete berri denean. Idazlearen seme-alabek harriduraz hartu dute Camusen hilobia aldatzeko proposamena.

Batetik, aitari omenaldia egin nahi izatea eskertzen dute. Baina zalantzak dituzte omenaldirik egokiena ote den, aita beti handikeria eta ospea saihesten ahalegindu baitzen. Sarkozyren protagonismoarako grina ezagun dute, eta presidenteak ekitaldia bere onurarako erabil dezakeela uste dute.



WWW.WORDPRESS.COM



Iñaki Uribe

Euskaldunon Egunkariako zuzendaria izan zen lehenik Iñaki Uribe (Zarautz, 1960) eta kontseilari ordezkaria ondoren. 2003an Guardia Zibilak atxilotu eta torturatu egin zuen, eta ia hemezortzi hilabatez eduki zuten preso. Fidantza izugarria ordaindu ondoren libre geratu zen. Frogarik ez dago, baina auziak aurrera egin du elkarte ultraeskuindarren bultzadaz. Zazpi urte geroago, Uribe Madrilen epaitzen ari dira egunotan, beste lau lagun ondoan dituela.

URKO APAOLAZA

Argazkiak: Dani Blanco

«Babesik gabe, bost pertsona solte baino ez ginateke izango»

Hamaika Telebistako Andoaingo bulegoko leihotik *Egunkaria* zenaren erredakzioa ikus dezake Iñaki Uribe. Tartean, zazpi urteko amildegia dago. “Zazpi urtez zintzilik eduki gaituzte” dio. Eta zintzilik daude oraindik, Auzitegi Nazionalako eskubeltz bateren kapritxoetatik zintzilik. Bulegoan, pertxero huts baten soslaia atzean duela hitz egin du Uribe: “Zaila da juizioaz aritzea, espekulazioen gainean hitz egiten ari zara eta ezin duzu ezer garbirik esan... arriskutsua izan liteke”.

Ez da lehenengo aldia Auzitegi Nazionalan izaten zarena.

Lehenengo aldiz atxilotuta nengoe-la eraman ninduten eta gero bisita dezente egin nituen kartzelatik. Esaterako, froga kaligrafikoak egiteko eta abar. Torturak salatzeagatik kereila sartu zigutenean ere horko lehen instrukzioeko epaitegian izan nintzen. Kereilak hor jarraitzen du, ez dakit nola geratuko den, baina hor dago.

Oraindik itxi gabe dago kontu hori?

Nik dakidala bai. Gure tortura kasuak artxibatu zituzten, baina garai haietako fiskaltzak gure kontra jarritako salaketak nik dakidala hor jarraitzen du.

Zazpi urteren ondoren ahozko epaiketari hasi da. Zer sentsazio izan duzu akusatuen eserlekuan esertzerakoan?

Batez ere bukatzen hasteko gogoia, ze hau bukaeraren hasiera da... bukaera baldin bada. Hala ere, honek luze joko du. Eman dezagun kasurik onenean absoluzioa edo holako zerbait dagoela, ondoren Auzitegi Gorenean errekurtsioa jarri eta luzatu egin liteke. Eta gero “auzi ekonomikoa” dator.

Agian, auziak har dezakeen norabidean gauzak argitzen joan litezke?

Sententzia bat egongo da, hori da diferentzia bakarra.

Epaiketaren lehen egunetan epaimahaiak izandako jarrera “arretatsua” deigarri egin zaio bati baino gehiagori. Zer diozu?

Baina hori da epaitegi batean tribunalak normalean izan beharko lukeen jarrera. Akusatuari zuzentzen zaio, uzten dio hitz egiten... Azkenean ahozko epaiketa eszenifikazio oso bat da: sala nola dagoen antolatuta, epaileak eta akusazioa non esertzen diren, togak, *puñetak*... eta horren guztiaren erdian akusatua jartzen dute. Distantzia batzuk markatzen dira, baina tratua normala da.

Eta zein izan da auzipetuon jarrera?

Guk epaiketa ez dugu puskatzeko moduan hartu. Herri akusazioari ez erantzutea erabaki dugu hain zuzen beraiek izan direlako auzia honaino eramán dutenak, eta zentzurik ez diogulako ikusten haiei erantzuteari. Hizkuntzari dagokionez, erdaraz ari gara deklaritzen, zeren eta itzulpen kaxkarrek kalte handia egin diote auziari; peritaje bat daukagu eginga eta adituek garbi diote holako itzulpen txarretan ezin dela oinarritu epairik.

Fiskaltzak galderarik ez egitea ez da oso normala izaten.

Ez badu akusatzen zer galdera egin behar du? Horretan oso koherentea izan da.

Herri akusazioa osatzen duten Dignidad y Justicia eta AVTk “bakardadean” aurkitzen direla esan dute, eta fiskalaren jarrera ere oso

zorrotz kritikatu dute. Sintoma ona al da hori?

Beti galdetu izan dut: *Egunkariak* zer kalte egin die elkarte horiei? Biktimarik sortu al du? Izatekotan *Egunkaria* izan da gehiegikeria handi batzuen biktima. Berez, akusazio popularra figura progresista bat da, baina Auzitegi Nazionalean perbertitu egin da eta erabiltzen ari dira oso interes beltz eta konkretu batzuen alde, jarrera ultraeskuinda-

***Egunkariak* zer kalte egin die elkarte ultraeskuindar horiei? Biktimarik sortu al du? Izatekotan bera izan da gehiegikeria handi batzuen biktima**

rrak defendatzeko. Hala ere, inpresioa daukat haiek esandakoak oihartzun gutxi izan duela.

Zu torturatua izan zinenean bertan zegoen guardia zibilak epaiketan esandakoa da hau: “Estropezu egin eta orkatila bihurritu zuela esan zidaten”. Nolako barrenak geratzen zaizkio bati hori entzutean?

Sentimendu arraroak dira, ez da gozoa edo mikatza, arraroa baizik. Hainbeste urte pasa eta gero horietako bat edo bi ezagutzea... Baina ikusten duzu teatro horren guztiaren barruan berak bere papera jokatzen duela: gezurra esaten du.

Zeren biktima izan zen *Egunkaria*, estrategia politiko baten biktima?

Auzitegi Nazionaleko interes partikularren biktima?...

Gauza asko dira eta garai haietan konfluentzian zeuden. Aznarren bigarren agintaldian Autonomia suspenditzea zegoen jokoan eta *Egunkaria*rena abisu bat izan zen. Bestalde, akusazioaren lehenbiziko hamalau folioak irakurtzen badituzu euskalgintzari buruzko tesi oso bat dago Guardia Zibilaren txosten batetik aterata, euskararen alde diharduten erakunde sozialak ETArekin lotuz. Eta bere txikian, kontuan izan behar da euskararekin batera komunitate bat hezurramitzen ari zela... Helburu asko dago hor. Gero, medailak jartzeko epaileak eta fiskalak beti egongo dira prest.

Guardia zibil bat tematu zela aipatu izan du baten batek.

Gauzak ezin dira horrela murriztu. *El Pais*eko artikuluren batean atera izan da hori, baina egunkari horrenztat askoz politagoa da guardia zibil ero baten kontua izan zela esatea Estatua edo instituzio bat izan zela esatea baino. Hemen oso gauza larriak gertatu dira eta bultzada politiko bat egon zen; guk beti esan izan dugu holakoak gerta ez daitezkeen gure beste bultzada politiko bat behar dela.

Epaiketan, orain artekoan, garbi geratu da epaileak ez zuela Guardia Zibilak eskatutakoa besterik egin. Hau da, *Egunkaria* itxi zutela frogak bilatzeko, eta ez alderantziz.

Lehenbizi itxi egiten da eta gero esplikazioak bilatzen dira. Ez daki-



“Ikusten duzu teatro horren guztiaren barruan guardia zibilak bere papera egiten duela: gezurra esaten du”.



Irakurleari mezua

"Eskerrak eman beharrean gaude jendeak eman digun laguntza guztiarengatik. Laguntza eskatu eta jendeak eman egin digulako. Eta laguntza eskatu dugu guretzako, baina baita ere *Egunkariaren* oinarrian dagoen horren alde egiteko ere. Mezua? Irakurleari esango nioke partida ez dela bukatu eta adi egon behar dugula, kontzentratuta egon behar dugula, zeren kontua ez da epaiketa honekin bukatzen, gero auzi ekonomikoa dator eta oraindik luze joko du".

gu hau nola bukatuko den, baina beste batzuetan horrek balio izan du; 18/98ko sententzia begiratzen baduzu frogak baino, interpretazioak dira.

1990etako ETaren ustezko dokumentu batzuk aurkeztu dituzte frog bezala, aspaldi publikatuak eta beste auzi batzuetan erabiliak. Dokumentu horien interpretazio baten pean ikusten al duzue zuen burua?

Horietan oinarritzen dira. Baina paper horiek fiskalak oso ondo aztertu ditu eta garbi esan du ez dutela ezer frogatzen. Jakina, hori da etxe horrek [Auzitegi Nazionalak] duena eta aurreko esperientziek erakusten dutena: ikusten badute horrelako helduleku bat behar dela, horretan oinarrituko dira eta puntu.

Zer iritzi duzu Eusko Jaurlaritzak epaiketaren aurrean izandako jarraz?

Azkenaldian hainbat deklarazio egin dituzte fiskalaren posizioarekin bat eginez eta auziaren luzapena salatuz. Guk hori baino gehiago nahiko genuke, baina niri ez zait harrigarria egiten, norekin gobernatzen ari diren ikusita.

Billboko manifestazioa jendetsua izan zen, 2003an izandako berotasuna sentitu nahi izan duzue egunotan, horrela izan al da?

Epaietara sartu aurretik esan nuen animoz kargatuta gindoazela. Berotasuna ikaragarria izan da, kalean, Durangon... Nolabait, euskal mundutik harago transzenditu duen gaia izan da eta gizarte osora heldu da, jendeak bizi du. Nik uste hori izan dela mobilizatzeko arrazoietako bat, nahikoa dela esatea. Ez da bakarrik berotasuna, hezurmamitzen joateko premia ere bada, horrelako bidegabekeriei mugak jartzeko.

Etixerat-eko kide batek *Berrian* kale-ratutako gutunean galdetzen du: "Non daude adierazpen askatasunaren oihukariak?" beste kasu eta auzi batzuetan. Zer esan liteke horren aurrean?

Errealitatea, zoritxarrez, horrelakoa dela. *Egunkariak* baterakoia eta zabala izatea lortu zuen eta hori manifestazioan igarri zen. Beste auzi batzuk zailagoak dira. *Egin* ere egunkari bat zen eta guk behintzat beti adierazi izan diegu gure babesa eta elkartasuna, baina nire ustez egin izan dena baino gehiago egin beharko litzateke, zeren hori ere

Lehenbizi itxi egiten da eta gero esplikazioak bilatu. Ez dakigu hau nola bukatuko den, baina beste batzuetan horrek balio izan du

egunero kandela pizteko moduko gaia da.

Auzi ekonomikoan ere inputaturik zaude. Auzi nagusiko epaiak eragin handia izango du bestearen ibilbidean.

Auzi ekonomikoaren instrukzioa oraindik itxi gabe dago, baliteke oraingo epaiketa bukatu aurretik ixtea. Hor, berez, ez dago ezer, baina auzi nagusiko sententziak eragina izango du, helduleku bakarra delako esatea ustezko delitu ekonomiko horiek lotura zutela terrorismoarekin.

Beraz, esan liteke zuetako batzuentzako epai bikoitza izango dela?

Bai, hori aurreikusia nuen. Baina orain auzi ekonomikoa momentu prozesal berezian dago.

Pertsonalki zer irakasgai atera duzu orain arte bizitakotik? Gauza positiboak ere izango dira...

Gauza positiboak dira ikustea nola ARGIA eta *Egunkaria* aurrera ateratu genituen, han topatutako koardila eta lan taldeak... Horiek klabeak dira beste egunkari bat atera eta pauso gehiago emateko. Eta bestalde, auziaren kontu honetan langileek erakutsi dutena hor dago, dirua biltzen eta abar... Gu horretan oinarritu gara, zeren eta bost pertsona solte besterik ez gara, ez daukagu egiturarik, ez gara sindikatu edo alderdi bat, eta hala ere posible izan da babesa lortzea eta ez manifestazio batean bakarrik gertatzea. Ez da *Egunkaria* bakarrik, euskararen eta herriaren aldeko proiektua da, nire ustez hori dago oinarrian eta oso inportantea da aurrera begira. ■

Erretiroa 65 urtez harago atzeratu nahi dute

2010eko lehen hiruhilekoa amaitzerako, Espainiako Gobernuak lan eta pentsio erreformaren alorrean akordio berriak lortzea aurreikusten du. Erabakiek Espainiako Estatuko milioika langileri eragingo diete.

DANIEL UDALAITZ

ESPAINIAKO GOBERNUAK estatuko ia familia guztiei eragingo dien bi erreformei buruzko erabakiak hartzea aurreikusten du 2010eko lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen. Lan erreforma eta pentsioen erreforma dira eta, beraz, erretiro adinari eragiten diote. Bi erreforma horiek Hegoaldeko euskal herritarrei ere eragiten die, subiranotasun politikorik ezean, gai hauen eskumena Estatuak baitu. Iparraldeko herritarrak, halaber, Frantziako Estatuak erabakitako politikaren menpe daude.


Espainiako Gobernuak hartuko dituen erabakiak, administrazioak, patronalak eta sindikatuek (CCOO eta UGT) negoziatuko dute, nagusiki Toledoko Itunaren testuinguruan. Ondoren, lehen fase horretako akordioek —ala desadostasunek— izapide politikoak eta parlamentarioak gainditu beharko dituzte. Azkenik, akordioa lortu ala ez, Espainiako gobernuak neurriak hartuko ditu.



Oraingoz langileek beren borondatez erretiroa 65 urtez harago atzera dezakete.

Espainiako Lan ministro Celestino Corbachok hala esan zuen, patronalari erantzunez: “Gobernuak ez du

lan erreforma egingo CEOEk eskatzen duelako”, baina zera ohartarazi zuen: “Gizarte elkarrizketan lan arau-



Iturria: Eustat

Lan erreforma

Gobernuak esku artean duen lan erreformari buruzko datu gutxi jakinarazi dituzte oraingoz. Patronalari erantzunez, Espainiako gobernuak esan du erreforma ez dela CEOEk (Enpresa Erakundearen Konfederazio Espainiarra) eskatu duelako egingo, eta CEOek nahi duen bezalako erreforma ez dela izango. Zehazki, gobernu sozialistak behin eta berriro adierazi du lan erreforma langileen eskubideen errespetuan oinarrituta egin behar dela. Eta inolaz ere ez da hartuko kaleratzea merkatzearen bidea, patronalak horixe eskatzen duen arren.

Zantzu guztien arabera, lan erreformak kontratu egon-

korragoak bultzatuko dituen araudi berri bat jasoko du. Halaber, ordaindutako lanaldia murriztea da araudian jaso nahi duten gai nagusietakoa, Alemania eredutzat hartuta. Iaz indarrean jarri zuten alemaniar ereduak herrialde horretako 1,5 milioi pertsonari eragiten dio: lanaldi murriztua duten langileek kobratu egiten dute eta lan egiten ez duten orduen portzentaje bat konpentsatzen zaie. Horrez gain, ordu horiek trebakuntzara bideratzen dira. Beraz, Espainiako Gobernuak lanaldi murriztuak eta langabezia saria eredu alemaniarren modura bateragarri egin nahi ditu.

diaren aldaketari buruzko akordioak ez badago, Gobernuak egin behar duena egingo du”.

Pentsioa atzeratu

Espainiako gobernuak burutu nahi duen lan eta pentsio erreforma Ekonomia Iraunkorraren Legea deritzonaren barruan dago. Orain arte jakin ahal izan dugunaren arabera, deigarriena eta polemikoenak Ekonomia ministro Elena Salgadok azaroan jakinarazitako erretiro erreforma izan da. Ministroak adierazi zuenez, erretiratze adin legala 65 urtez harago atzeratzeko asmoa dute. Orain arte langileek beren borondatez erretiroa 65 urtez harago atzeratzeko aukera zuten eta, ordaintetan, pentsioak %2 egiten zuten gora, lan egindako urteko. Egungo proposamena legezko erretiroa 65 urtez harago egin ahal izatea da. Ministroak ez zuen mugarik aipatu eta argi esan zuen pentsioen inguruko erabakiak Toledoko Itunearn hartuko zirela. Baina, abisu moduan, Holandan erretiro adina berriki 67 urtetan ezarri dela oharta-

razi zuen, hau da, egun Espainiako Estatuaren ezarritako adina baino bi urte gehiago.

Hala ere, horrelako neurriak, batean ezarri ordez, gradualki ezarri behar direla onartu zuen Salgadok.

Espainiako Elena Salgado ministroak, abisu moduan, ohartarazi du Holandan erretiro adina berriki 67 urtetan ezarri dela

“Pixkanaka gauzatu behar du”, esan zuen, “Toledoko Itunak erabakia hartzen duenean, adina gradualki igotzea da arrazoizkoena”. Erantsi dugun taulan ageri denez, Espainiako Estatuak –eta beraz, Hegoaldeko euskal herritarren– batez beste erretiro adin erreala 2008an 63,6 urtekoa izan zen Gizarte Segurantzaren arabera, eta 62,6koa, Eurostaten arabera. Frantziako Estatuari dagokionez, eta, hortaz, Ipar Euskal Herriko herritarrei dagokienez,

erretiro adin erreala 59,3 urtekoa izan zen 2008an.

Pentsio sistema erreformatu

Denak bat datoz pentsio sistema erreformatu behar dela esatean, sistemaren etorkizuna epe luzean bermatzeko. Europar Batasunak eskatu zuen, baita Espainiako Bankuak ere. Salgado ministroaren arabera, epe luze hori “25-30 urteko epea” da. Horretarako, Espainiako Gizarte Segurantzaren azken proiektioetan oinarritu da; azterketa horien arabera, Gizarte Segurantzak 2029 urtera bitartean pentsioak ordaintzeko ahalmena izango luke Estatuaren aurrekontuetara jo gabe. Dena den, 2023tik aurrera gaur egun 60.000 milioi euro biltzen dituen Erreserba Funtza erabili beharko luke.

Pentsio Sistemaren erreforma duela urtebete abiatu zen Espainiako kongresuan. Espainiako Bankuak, enpresarioek eta sindikatuek beren iritzia eman dute. Orain Gobernuaren txanda da: talde politiko guztien arteko akordioaren oinarri izango den dokumentua aurkeztu behar du. ■



EGUZKILORE®
osagarriak



www.eguzkilorejoya.com

POLTSAK
BETAURREKOAK
ZAPIAK
GORBATAK
KARTERAK
BILLETE-ZORROAK
DIRU-ZORROAK
GILTZATAKOAK



DONOSTIA: Hernani, 13 - BILBO - GASTEIZ - Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza

Aiatolen lurraldeko “gurutzatuak”

Etsita daude Esfahan hiriko armeniarrek. Aldaketa noiz iritsiko, hautagai erreformazaleari eman zioten bozka 2009an. Baina aldaketarik ez dator, eta gutxitzen doa, azkar eta etengabe, Iranen 400 urte bizirik iraun duen komunitatea.

KARLOS ZURUTUZA

ITXURA BATEZ, ez dago Julfa Berria auzoa Esfahango kale arruntetatik bereizten duen ezaugarriarik. Zerurantz begiratzerakoan, alabaina, minareteek ez, gurutzeek apainduriko kupulak ikus daitezke. Armeniarrek iritsi zirenetik egon dira zutik, komunitate bitxiari babesa ematen luzez, eta itzala besterik ez azken urteotan.

“Armeniarrok musulmanak bezala bizi gara Iranen. Igandetan lan egin behar dugu, Lege Islamikoen menpe gaude”, dio Esfahango unibertsitateko ikasle honek. Debekuak debeku, Eguberriak eta Aste Santua “behar bezala ospatzen” uzten die Gobernuak. Antza, nolabaiteko tolerantzia erakusten du, oraindik ere, Irango autoritate nagusiak.

Julfa Berriko kaleek dozena bat eliza ezkututzen dituzte, bai eta armeniar erizain eskola, eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako armeniar ikastetxeak. Aldi berean, armeniar genozidioaren urteurrena oroitzeko afixak ohikoak dira jatetxe eta dendetan. Emakumeek derrigorrezkoa dute beloa, jakina, baina askoz ere kolore biziagoz estaltzen dute ilea.

Zalantzarik gabe, armeniar identitatearen bihotza Esfahanen, eta Iran osoan, Vankeko katedrala da. XVII. mendean eraiki zuten iparraldetik etorritako armeniarrek. Irandarrek diote Otomandar Inperiotik ihesi iritsi zirela; armeniarrek, aldiz, esaten dute euren jatorriko herria (Julfa) suntsitu eta



Vankeko katedrala Irango armeniarren identitatearen bihotza da.

indarrez ekarri zituztela pertsiarrek. Edonola, denak bat datoz gauza batean: hona iritsitako armeniarrek (150.000 inguru) zetazko oihalen artisautzan eta arkitekturan bikainak ziren.

“Gure arbasoen herria, Julfa, Najitxevenan dago gaur egun, Azerbaijanen menpe. Ehunka, ia mila urte zituzten hilobiak eta elizaxoak suntsitu dituzte, ez omen da ezer gelditzen”, kexu da Tigran pentsioduna. Armeniarren eta azerien arteko gatazka amaigabeak berebiziko hondamendia sorrarazi du bi aldeetan. Tigranen herriki-deek garbiketa etnikoari ekin zioten Kaukasoko Nagorno Karabajen 90eko hamarkadan (ikus ARGIAN, 2007. zenbakian). Antza, azeriek

eredu bera jarraitu dute Najitxevenango eskualdean.

Tamalez, Julfa Berriaren “urrezko” urteak ere joanak dira. Iraultza Islamiarra 1979an nagusitu ondoren, Esfahango armeniar diaspora nabarmen hasi zen jaisten. Armeniar askok AEBetara, Kanadara eta Europara jo dute jada. Julfa Berrian gelditzea erabaki dutenak Armeniari begira bizi dira. Roland dugu horietako bat: “Etsita nago Gobernu honekin eta gutxitan jarraitzen dut Irango aktualitatea. Nahiago ditut Armeniako satellite bidezko albistegiak aiatolen propaganda baino”, kexu da frantses irakasle hau. Etxean Yerevandik ekarritako koinaka duela dio, begi-keinu batez. Horixe bere desafioa hainbeste gorroto dituen aiatolei. ■

LEVON ABELIAN

Julfa Berriko museoko zuzendaria

«Gure biziraupenaren sekretuetako bat herri txikia izatea izan da»

1905ean eraiki zen Julfa Berriko museoa, Vank katedralaren alboan. Sasoi guztietako artefaktuez gain, 700 eskuizkribu eta 1.000 liburu zahar gorde dira. Horieta-ko batzuk X. mendean idatzita-koak dira, hizkuntza aberats bezain ezezagunaren adierazle bikainak. Levon Abelianek makina bat orduz hitz egin lezake berak zaintzen dituen altxorrez. Guk berez harribitxia den komunitateri buruz galdetu diogu.

Julfa, zuen arbasoen herria, txikitu ostean, komunitate osoa hartu eta Julfa Berrira ekarri zuen Sha Abbas enperadoreak XVII. mendean. Zergatik?

Batetik, armeniarrok nekazari nahiz artisau bikainak izan ohi gara. Bien gabezia zegoen orduko Iranen, eta Sha Abbasek pentsatu zuen herrialdeko ekonomia bultzatu zezakeela horrela. Bestetik, Iran (Pertsia orduan) zetaren ekoizle handia zen. Armeniarron trebezia, otomandarrek zetaren merkatutik at utziko zituelakoan zegoen enperadorea.

Dena ekonomia hutsagatik, beraz?

Funtsean bai. Enperadoreak Pertsia Erdi Arotik atera eta XVII. mendera eraman nahi zuen. Kristauak garenez, armeniarrok zubilana egin genezakeen Mendebaldeko potentzietekin, batez ere Indiako zetaren negozioan murgil-



tzen ziren herrialdeekin. Nolanahi, bazegoen ekonomikoa ez zen faktorea: Abbasek safaviden fanatismoa leundu nahi zuen gure bidez.

Zenbat armeniar daude Iranen?

XX. mendean milioi bat armeniar ei zeuden; gaur egun, 200.000 baino ez. Kopurua azkar eta etengabe ari da jaisten. Talde handiena Teheranen dago, 60.000 dira. Esfahangoa komunitate historikoa den arren, 8.000 besterik ez gara.

Zerk bereizten zaituzte Irango gainerako nazioengandik?

Oso herri txikia gara. Azeriak, esaterako, hogeit mila inguru dira Iranen, kurduak zazpi milioi, balutxeak bi... Hein batean, gure bizi-

raupenaren sekretuetako bat herri txikia izatea izan da, Teheranentzat ez baikara inoiz mehatxu izango. Horri esker, gure eliza eta elkarteak izateaz gain, eskolak eta argitalpenak ere baditugu Iranen.

Eta gainontzeko armeniarrengandik?

Amerikan eta Europan bizi diren armeniarren arbasoek Anatoliatik ihes egin zuten XX. mende hasieran, turkiarrek genozidioari ekin ziotenean. Mendebaldeko armenieraz hitz egiten eta antzinako alfabetoz idazten dute; izan ere, Anatolia, ekialdeko eskualde hari, "Mendebaldeko Armenia" deitu ohi diogu. Iranen, ordea, ekialdeko armenieraz mintzo gara, egungo Armenia, Georgia eta Errusian erabiltzen den hizkuntzan. Baina azken herrialde horietan ez bezala, guk antzinako alfabetoa erabiltzen dugu idazterakoan. Ekialdeko hizkera eta Mendebaldeko alfabetoa "nahasten" ditugun armeniar bakarrak gara.

Ez al da Julfa Berria armeniar ghetto hutsa bilakatu? Musulmanengandik banatuta bizi gara, gure kultura zaintzearren. Gure gizartetik kanpoko harreman oro komertzialak dira, ez besterik. 400 urtez bizi izan gara hemen. Zaila izango den arren, gureari eusten saiatu behar dugu.

Ez al da Julfa Berria armeniar ghetto hutsa bilakatu?

Musulmanengandik banatuta bizi gara, gure kultura zaintzearren. Gure gizartetik kanpoko harreman oro komertzialak dira, ez besterik. 400 urtez bizi izan gara hemen. Zaila izango den arren, gureari eusten saiatu behar dugu.

Babeslea: Hondarribiko Udala



Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

30.000 euroko isuna Euskalerria Irratiari

ESPAINIAKO Industria Ministerioak jarri dio isuna; 15.000 euro lizentziarik gabe emititzeagatik, 7.500 euro irrati-instalazioak baimenik gabe jartzeagatik eta beste 7.500 euro “interferentzia kaltegarriak” sortzeagatik. Euskalerria Irratiak helegitea aurkeztu du isunaren kontra eta bi argumentu nagusi aipatu ditu: batetik, irratiaren antenak interferentziarik sortzen ez dutela dioten txosten teknikoak, Industria Ministerioak berak aurkeztuak; bestetik, Erreniegan irrati-aparailuak jartzeko Nafarroako Gobernuak emandako baimena.

D bitamina hartzeko kanpaina

BIZKAIKO 45 udalerrik jarri dute abian *D bitamina*. *Aberastu bere bezike-ta!* kanpaina. Gurasoentzako kanpaina da, seme-alabak D ereduari matrikulatzen anima daitezen.

Gematarrak

TIRAKA.NET webgunean martinrezola erabiltzaileak Jaurilaritzako lankide baten hizkuntz egoera azaldu du. Hona pasarte bat: “MIC erdaraz bizi da etxean, familian, lagunartean. Baina euskalduna da, maila polita lortu du (...). MICEk, euskara ikasi duten Jaurilaritza honetako beste langile askok bezala, euskaraz egingo

dizu zuk berari euskaraz egiten badiotzu. Ez hori bakarrik: euskaraz egiten dio, askotan, baita ere berari erdaraz zuzentzen zaionari, baldin badaki lankide hori euskaldun labelduna dela. Horrek egiten du MIC diferentte. Hori dela eta, elkarrizketa bitxiak entzun izan dizkiot, demagun, Gema euskaldun labeldunarekin:

–Egun on, Gema. Zer moduz aste-burua?

–No muy bien. El sábado y domingo en la cama, con fiebre. ¿Y tú, por dónde has andado, MIC?

–Larunbatean zinean, aspaldiko partez.

–¿Ah sí? ¿Y qué viste?

(...) Eta Gema dugu problema nagusia, ez MIC.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Komertzioa eta kontsumoa

Nafarroako merkataritzan ELA, LAB, CCOO eta UGTk langileen greba deitu dute igande eta jai egunetan lantokiak irekitzearen kontra, eta hurrengo hila-beteetan jarraipena izango du. Greba horrek hiru arazo nagusi jarri ditu mahai gainean: igande eta jai egunetan –zortzi egun izango dira 2010ean Nafarroan– lan egitera behartzen zaion merkataritzako langilearen egoera; merkataritza enpresen eta banaketa kateen jokaera; kontsumitzailearen ardura.

Langileek salatu dute igande eta jai egunetan merkatal zentroak irekitzeak euren bizi kalitatea kaltetzen duela, lanaren eta familiaren arteko kontziliazioa eragotziz. Enpresa handiek etekin handiena bilatzen dute eta ez zaie inporta horrek gizarte eredu kontsumista ekartzen badu, Nafarroako errealitate sozial eta ekonomikotik oso urrun. Beraien helburua negozioa da, zenbat eta gehiago, orduan eta hobe. Kontsumitzaileak erraztasun gehiago nahi ditu erosketak egiteko eta ez dio axola igande eta jai egunetan lanean ari den langilerik badago. “Emango dizkie opor egunak” pentsatzen dute horietako askok.

Interesen bidegurutze honetan, merkataritzako langileen interesak lehenetsi behar dira. Nahikoa urratua dago beraien bizitza familiarra eta soziala astean zehar, horrez gain igande eta jai egunetan lanean aritzeko. Igande eta jai egunetan irekitzea, gainera, enpresa handientzako baino ez da mesede, komertzio txikiak ezin baitu kostu hori bere gain hartu, eta neurri horrekin, oraindik gehiago hondoratzen dira. Merkataritzako langileak babestu behar-kito lituzketenak kontsumitzaileak dira, erosteko nahikoa denbora baitute astean zehar. Kontsumitzaileek igande eta jai egunetan irekitzen duten komertzioei boikota egiten badiete arazoa konponduko litzateke. Merkataritzako langileek atseden hartzeko eskubidea dute. Herriarren gehiengoak bezalaxe.

Juan Mari Arregi

Diario de Noticias-en Maria Luisa Mangado NaBaiko Hezkuntza bozeramaleak esanak: “UPNko jaun-andereok, bazenekiten diru kopuru horiekin egiten diren zerbitzuak ezin direla kantitate-banaketaren jolasaren zoriaren mende egon: aurten hemendik kenduko dut eta han jarri, eta hurrengoan alderantziz, eta jolasa bailitza Euskarabideako beste partidatoko diruak desbideratzen dituzte lehen aipatu ditudanerako. Hauek gehitu, horiek murriztu edo hutsean laga, eta kantitate horiek guztiak, nondik? Euskarabideatik. Eta hemen dago jokaldi borobila: Egin dezatela borroka euren artean! (buru makiabelikoen neurrikoak)”.

Aitor Azpiazu Eibartik blogean esanak: “Barandiaran ikertzaile handia izan zen, baina ez zuen lortu eskola bat sortzea. Pena ematen dit: bere zenbait jarraitzailearen lanak, haren aldean, hutsaren hurrengo dira; bai euskaraz menderatzen ez dutelako bai Europako aurrerapenak eza-gutzen ez dituztelako”.

“Euskara”-ren lekuan “abertzale” irakurtzen du UPNk

G.B.

EUSKALERRIA IRRATIAK

egoera larriari egin behar-ko dio aurre ostera ere. 30.000 euroko isuna jarri dio Espainiako Industria Ministerioak lizentziarik gabe emititzeagatik, irrat-i-instalazioak baimenik gabe jartzeagatik eta interferentziak sortzeagatik. 30.000 euro asko da estu dabilenarentzat, baina larriena irratia

aurka bere sorreratik dagoen jarrera da. Eta orain gainera, isunaz gain mehatxu berri bat, lizentziarik ez duten irratiake legez itxi nahi ditu Espainiako Gobernuak.

Euskalerria Irratiak baditu isunaren salaketak atzera botatzeko eta egiazkoak ez direla frogatzeko argudio sendorik, eta hala egingo du isun aginduaren aurkako helegitean. Lehenago ere garaile atera izan da epaitegietan, nabarrismo eskuindarraren maltzurkeria agerian utziz. Ez da nahikoa izan ordea, 20 urte eta gero lizentziarik gabe jarraitzen du oraindik.

1988an sortu zenetik lizentzia lortzeko hiru saio izan ditu Euskalerria irratiake eta hiruetan kale egin du. 1990ko lehiaketan, adibidez, lizentzietako bat inoiz entzun ez den Radio Blancari eman zitzaion.

Joan den apirilean, Nafarroako Legebiltzarrak –UPNk ezik– erabaki zuen euskarazko irratiake lizentzia eduki behar zuela. Eta martxoan, aldiz, beste bi irratiri –Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21– egun duten lizentzia kentzea eskatu zuen, lizentziaren eskakizunak betetzen ez zituztelako.

1998an izan zen azken lizentzia banaketa eta ziren hiru proiektuetatik, Euskalerria irratia eta bost lerro



aurrerago aipatutako biak ziren lehian. Euskarazkoak zuen puntua-ziorik onena, baina iritsi zen UPN, irizpideak aldatu eta Euskalerria Irratia atzean geratu zen. Gero epaileek esan zuten ez zela justua izan eta atzera bota zituzten egindako amarruak. Irratiak beste behin ere arrazoi zuen, baina oraindik lizentziarik gabe jarraitzen du. Euskarazko hedabideetan asko idatzi da lizentzia hauei buruzko aferez, baina azkar batean muinera jo nahi duenak, jo dezala Kike Diez de Ultzurrun irratiko kazetari ohiak ARGIAren 2024. zenbakian idatzitako artikulura (<http://www.argia.com/argia-astekaria/2024/euskalerria-irratia>). Han ditu klabeak.

Iruñerriko euskaldunen hizkuntz eskubideen aurkako historia luzea da Euskalerria Irratiaren lizentzia ukazioarena. Amarruz eta amorruz egindako eskubide urraketaen historia. Batetik, UPNk onartua du euskara ez dela gaur egungo bizitzarako hizkuntza, horretarako badela gaztelania, ez duela merezi historiaren aurka egitea eta historiak dagoeneko erabaki duela euskara Nafarroan museo hizkuntza izatea. Bestetik, “euskara” jartzen duen tokian “abertzale” itzultzen du eta horrek izua ematen dio.

LEHERKARIEKIN

atzera eta aurrera ibiltzea ez da ETArek jardura armatuari buruzko berri-rik itxaropentsuena. Bestetik, pentsatzekoa da ENAMen egiten ari den barne eztabaida horretan borroka armatuaren desegokitasunera iristen badira, ETak ere behar duela bere denbora hori bereganatze-ko.

Edo eztabaidak jarraitzen duen bitartean, erande armatuak berdin jarraitzen duela hornitze eta mantenu lanetan. Pentsa liteke, halaber, egungo egoeran oraindik maila bateko atentatuak egon daitezkeela, 2006ko su-etenaren aurretik ere hiru urtez ez zuen hildakorik eragin. Eta txarrean jarrita, pentsa liteke batzuek jarraitzea erabaki dutela.

Ez dakigu zer eszenatokitan gauden eta sortzen ari den nahasmenen ENAMi dagokio argibideak ematea. Bistan da batzuek ez dutela bide hori lagunduko, areago oztopatze-ko ahaleginak egingo dituztela. Prozesu hori pentsatu bezala ateratzeko interes gehien duenak argitu behar du egoera, ahal duen neurrian behinik-behin.

Sartu gara 2010ean eta hau urte garrantzitsua da 2011ko udal eta foru hauteskundeak prestatzeko. Polo soberanista hor dago, iragan egunak bezain hotz; eta abertzaleen arteko mesfidantzak ere bai, ohi moduan, hauek beroago. Izan dira eta badira elkarlana joratzeko ari-etak, horra presoen aldeko urtar-til hasierako manifestazio handia, eta horra hilaren 30erako antolatu den eskubide politikoen aldeko Bilboko ekitaldia.

Saheleko Al Kaeda, geopolitikak sortu Frankenstein berria

Nor dabil Mauritania, Mali, Txad eta inguruetan atzerritarrak bahitzen? Magrebeko Al Kaeda famatua benetan al da Al Kaeda? Saharako basamortu lasaia nolaz bihurtu da terrorismoaren kontrako borroka delakoan gune nagusi potentzia handientzako?

EUROPARRAK OHARTU DIRENERAKO Al Kaedaren borrokaren bigarren fronte nagusia atarian daukate. Baina oraingoan ez da Aljeria aipatzen, ez eta Mauritania ere, Mali dabil denen ahotan. Sahelen bahitzen dituzten atzerritarrak, izan turistak edo Gobernu Kanpoko Erakundeetako kideak, Maliko ipar aldean edukitzen dituzte gorderik, bertako tuaregen buruzagiek egiten dituztelarik bitartekaritza lanak. Aldiz, orain dela ez urte asko Mendebaldekoak Mali aipatzen zuten egonkortasun eredutzat.

Le Nord Mali victime d'une prophétie autoréalisatrice artikuluan, *Le Monde Diplomatique*ren gunean, Jean-Christophe Servant kazetaria aztarrika aritu da han gertatzen ari denaren gakoen bila. Ezusteko handiak suertatu baitira 2009an Malin. Azaroan basamortuan Boeing 727 zahar bat azaldu zen kiskalita, dirudienez Hego Amerikatik kokaina tona mordoak eta armak ekartzeko erabili ondoren. Handik laster bahitu zituzten Mauritanian Barcelona Acció Solidariako hiru kideak, ondoren Malira eramateko. Aurretik, maiatzean, bi diplomatiko kanadar askatu zituzten eta Edwyn Dyer britainiarra hil.

Gertakizunon eta gehiagoren inguruko informazioak oso nahasiak diren arren, hedabide nagusiek

Magreb Islamiarreko Al Kaeda (MIAK) egin dute erantzule. Washingtongo agintariek mezu bera zabaltzen dute eta azken urteotan Bamakoko gobernuari ematen zioten laguntza militarra handitu egin die Barack Obamak. Joan den urrian Malik 4 milioi dolar balio duten material militarra eskuratu ditu.

Saheleko gainerako herrialdeek denetara aurreko urteko laguntza militarren %300 gehiago jasoko dute AEBetatik, yankiek eskualde horretan daukaten interesaren seinale. Eta aldiz, Servantek salatzen duenez eta beste ikerlari batzuek ere diotenez, “ez dago frogatuta Saharako Al Kaeda hori benetan Al Kaeda denik”.

Servantek artikuluan aipatzen du Jeremy Keenan antropologo britainiarra, *Dark Sahara, America's War on Terror in Africa* (Sahara iluna, AEBen gerra antiterrorista Afrikan) liburuaren egilea eta 1964tik Saharan etengabe lanean aritu dena. Tuaregak beste inork baino hobeto ezagutzen dituelako fama omen dauka.

“Munduan oso leku gutxitan erabiliko zen desinformazioa –idatzi du Keenane– Maliko ipar aldearen eta Aljeriaren arteko mugan bezala. Egia esan, gerra antiterrorista deitu dioten horretan Saharan bigarren

Manfred Schwedaren argazkian mutiko tuaregak ageri dira gameluen gainean. 2006an Esakane-Tinbuktun ospatutako musika festibalean dago aterea, tuaregtarrek kanpotarrei gamelu lasterketa eskaini zientean opari. 2010ekoa hamargarren edizioa duen *Festival au Desert* delakoa urtarrilaren 7, 8 eta 9an zen izatekoa. Afrikako musikariekin mundu zabalekoak biltzen dira egun horietan Maliko hiri mitikoan. Ikusteke dago aurrerantzean turismoan zein eragin izango duen Magreb Islamiarreko Al Kaedaren inguruan sortu den gatazkak. Azken urteotan turista *chicen* helmuga preziatu bihurtuta bazegoen Saharako basamortua, gutxi iraun du Saheleko lurrotan atzerritarren, abeltzain nomaden eta lekuko lapurren arteko elkarbizitzak.

fronte bat antolatzeari dagokionez, garrantziarik handiena eduki du Bushen administrazioarentzako”.

Sahelen Washingtongo gobernuak 2003an sartu zuen muturra indar berriz. Urte horretan gertatu ziren sei turista talderen bahiketak Aljerian eta hasi zen entzuten “Saharako Bin Laden” berriaren izena: Amari Saifi, *El-Para* (armadan paratxutista izateagatik hartutako ezizena).

El-Pararen biografia da Sahelen bizi den joko lanbrotsuaren eredu. Aljeriako armadan talde berezietako ofizial izana, 1992an GIA talde islamista armatura pasatu zen. 1994tik 1997an, hala dio Keenane, amerikarrekin entrenatu zen Fort Braggen. Aljeriara kapitain graduarekin itzuli eta orain bera omen da Magrebeko Al Kaedaren buruzagi. “Niretzako –dio Keenane– *El-Para* beti egon da lotuta Aljeriako zerbitzu sekretuekin”.

Saharako altxorrak

Gerrilla islamista Aljeriako zerbitzu sekretuek manipulatzeko dutela iturri askok aspalditik defenditzen dute. Oraindik Jean-Christophe Servanten artikuluari *Le Monde Diplomatique*ren blogean erantzuten dion irakurleetako batek ildo hori lantzen duen dossier bat aipatzen du, Internetz irakur daitekeena: Algeria



Watch gunean irakur daiteke *“Al-Qaida au Maghreb”, ou la très étrange histoire du GSPC algérien.*

MIAK ilun horrekin nahasita aktore gehiago badira Saheleko antzokian: lekuko frankotiradore islamista batzuk, bertako betiko bideko lapurrak, tabakoan eta bes-tetan ari diren kontrabandistak, eta beste. Saltsa-maltsa ondo etorri zaie Mendebaldeko potentzia handiei –amerikar, ingeles eta frantsesei batik bat– kontraterrorismoaren aitzakiatan eskua sartzeko. Sahara-ko areak altxor handiak ezkutatzan baititu: uranioa Nigerren, petrolio, gasa eta urrea Malin...

Frantziako zerbitzu sekretuetako ofizial-ohi batek Servanti esplikatu dio Sahelen gaur banda bat baino

gehiago dabilela txarkeriatan, nagusiak bi direlarik. Batetik Yahia Djua-di buru duena, bere burua MIAKen “9. Eskualdea” izendatzen duena. Bigarrena BMokhtar Belmokhtar-ren taldea omen da, hau nabarmenago diru lapurretara bideratua. Biek ere moldatu beharra daukate antzinatik Saheleko basamortuan batetik bestera dabiltzan tuareg tribuekin. Horrela baizik ezin da ulertu bahituekin taldeen artean egiten den “salerosketa”.

Nahikoa sikulusaltsa ez balitz, horri erantsi behar zaizkio urteotan Afrikan lur hartu duten narkotrafikatzaile hegoamerikarrak, Saharan logistika antolatu dutenak.

Alde horretatik, amerikarrek estrategia antiterrorista eta narko-

trafikoaren kontrakoa elkarri loturik burutzen dituzte. Hori ere ez da berria, ikusi baizik ez dago Kolonbian gertatzen dena. Afrikari dagokionez, abenduaren 18an Maliko hiru herritar MIAKekoak izateaz akusatuta Ghanara eraman zituzten lehenbizi eta handik AEBetara estraditatu. Malitar horiek tranpan agente amerikarrek erorarazi zituzten, Kolonbiatik Europarako kokaina garraio bat Saharan barrena antolatzea proposatuz. Egunen batean AEBetan epaiketa egiten bada, ekarriko du haria istorio honek.

Eta hemendik aurrera zer gertatuko da batzuen eta besteen artean sortarazi duten Frankenstein honekin? Hona Jeremy Keenan antropologoaren iritzia: “Aipatu bidetik segiko dugu 2010ean. Aljeriak jarraituko du esaten Saheleko berezitasunen emaitza dela eta berak horren sorreran ez duela zerikusirik izan. Bitartean, Europako herrialdeek, hala nola Frantziak eta Espainiak –hau lehendik baitago Aljerian present Repsol eta Cepsarein, baina oraindik jokoaren arauak ikasteke dauzka– aitzakia hau usatuko dute Sahelen eskua sakonago sartzeko, alde militarretik alegia, eta batik bat Niger Iparraldeko meategien inguruetan. Bereziki, Nicolas Sarkozyrekin kolonizatze berri bat ikusiko dugu, eta Areva korporazioari Nigerren gerta dakiokena: Tuareg jendea berrirori matxinatu liteke. Ez berehala: tribuak zatituta eta nekaturik daude. Dena dela, ikertzaile batentzako, une interesgarria: Saharan ez da sekula hainbeste jende ibili”. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira

Aingern Epaltza

Galtzeko denborarik ez



Horra Olentzerok opari utzi didan liburua: *Sin tiempo que perder*. Miguel Sanchez-Ostizen dietario errumaniar-txiletar-eskoziarra, Alberdaniak plazaratua, nire herrikidearen azken idazlan gehienak bezala. Eskerrak bihurtu dizkiet etxekoei. Asmatu dute gustukoa dudan idazlearekin. Haien ziri amultsuaz ez ohartzeko bezain kamutsa ez naiz, dena dela.

Sanchez Ostiz bezainbat bidaiatu gabe ere, nik ere denbora galtzeari izua hartu diot aspaldi honetan. Egunei eta gauei etekina ateratzeko grinak joa nabil. Asteburuetan, lanegunetako egutegi berdintsua erabiltzen dut, doi-doi luzaturik lo egiteko orenak. Gero eta bakanagoak ditut etxeko salako eserialdiak. Planak mahai gainean metatzen zaizkit. Solasaldietan, aise ateratzen dira nire ahotik “goazen!” eta “dezagun!” bezalako adizkiak. Oraintxe bertarako nahi ditut zinez interesatzen zaizkidan gauzak, ez biharko eta are gutiago etziko.

Horrek guztiak, bistan dena, bere prezioa du. Azaldu beharrik ez da nire ingurukoendako zenbateraino den durduzagarri nire presa hori, zenbateraino nekagarri nire beti zerbaitetan ari behar hori. Alabak txantxa izpirik ez zuen ageri berrikitan jaulki didanean: “Aita, eritasun txar bat diagnostikatu badizute, erran behin goz, hilabeteko bizitza geldituko balitzaizu bezala ari baitzara”.

Alabak badaki, alabaina, ez naizela eri, urteez ez bada. Batzuei pausatzeko gogoia ekartzen diete urteek. Nik hipe-raktibitatea zor diet.

Hona inork gutik dakien sekretua: mende erdia beteko dut heldu den otsailean. Bortz hamarraldi. Berrogeita hamar urte. Egitate itzulezin horren aitzinean bat heldu dira Psikologia eskola gehienak: adin arriskutsua da gizase-meondako. Edo gisame guztiendako ez



DANI BLANCO

bada, bai anitzendako, bederen. 40etako krisialdi beldurgarria erabat gainditu gabe dugula, 50etakoan erroizten gara gutiz gehienak. Gaitzaren sendabide, aholkatzen digute urteen etorriari amore emateko eta duintasunez zahartzen ikas-teko. “Patetikotasunetik urruntze aldera, baizik ez bada ere”, gehitzen dute gaiztoki. Kontseilu zuhurra, inondik ere, baina adin batzuetan ez gaude kontseilu zuhurrak aditzeko. Hartara matxinatzen gara, eta denborari gerla deklaritzen. Estatistika kontra dugu. Gatazka horretan gizonen %100 galtzaile gertatzen dela badakigu, baina hori nori inportatzaio? Hemen sortu garenok abantaila dugu alde horretatik. Euskaldunok sekulako eskarmentua dugu gerlak galtzen.

Uler bitez ongi gauzak. Gauza batzuetan etsi dut. Konparaziorako, honezkero badakit ez dudala behin ere Naomi Campbellekin asteburu berorik izanen, Karibeko uharte batean. Orobat jakin nire ingelesaren txukunak ez duela inoiz inongo entzulerik liluratuko, edo nire —tamalez, ez bertzte inoren— zutabe bateko salaketek ez dutela sekula UPNren gobernu betierekoa eraitsiko. Xede egingarriagoak finkatu beharko.

Luzea da oraindik egin ez ditudan (bertze) gauzen zerrenda. Anitz dira inoiz ezagutu gabeko hiri eta lurraldeak. Zer esanik ez oraino igo gabeko mendiak, irakurri gabeko liburuak edo, beharbada, idazteko ditudanak. Horretarako guztirako, denbora baizik ez dut behar. Ziriak ziri, maite nautenen damuz, galdu nahi ez dudan denbora.

Nik, 2010 hasi berri honetarako, horixe nahi nuke bai niretako bai, eskatzen hasita, munduko bazter honetan zerbaitetan ari diren bertzeendako ere. Denbora, ez galtzeko. ■



Honezkero badakit ez dudala behin ere

Naomi Campbellekin asteburu berorik

izanen, Karibeko uharte batean. Orobat

jakin nire ingelesaren txukunak ez duela

inoiz inongo entzulerik liluratuko, edo nire


zutabe bateko salaketek ez dutela sekula

UPNren gobernu betierekoa eraitsiko.

Xede egingarriagoak finkatu beharko



ASTE HONETAKO zozketa



Ondarre Landetxea

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Ondarre baserria
Segura, GIPUZKOA

Tel.: 943 801 664

1



The Uski's katuek bezala

3 CD opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

2



Laia

3 CD opari

Baga Biga

www.baga-biga.com

3



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

UROLA JATETXEA

• Igor Jimenez Honrado (Elorrio)

AMAGOIA I ETXEKAR

• Redondo Jaun Andreak (Hernani)

MIKEL URDANGARIN

• German Orbegozo Orbegozo (Donostia)
• Josune Arandia Belaustegi (Lemoa)
• Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)
• Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)

OLABERRIAKO KARTING

• Mari Eli Ituarte Zarragoikotxea (Markina-Xemein)
• Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)
• Rafael Gomez Urbiria (Donostia)
• Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)
• Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)


TXORIAK TXORI ETA GARTXOT

• Miguel Angel Cisneros Guillate (Leganes)
• Asier Lizarriturri Martiarena (Aretxabaleta)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



TXITXARDIN BELTXA

Oria Etorbidea, 12
☎ 37 03 04